



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

VITORIA-GASTEIZKO GARBIKETARI ETA HONDAKINEN BILKETA ETA GARRAIOARI BURUZKO ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

Herritar guztiak sentitzen duten eta administrazio publikoaren maila guztiak arduratzen dituen kezka da, gaur egun, ingurumena babesteko dagoen premia. Sentipen horrekin bat etorritik, pertsonaren bilakaerarako egoki den ingurumena izateko eskubidea aldarrikatzen du Konstituzioaren 45. artikulua, baita, oro har, hori zaintzeko beharra ere. Orobat adierazten da artikulua berean baliabide naturalen erabilera arrazionala zaindu, bizitza-kalitatea babestu eta hobetu eta ingurumena defendatu eta lehengoratzeko obligazioa dutela aginte publikoek.

Vitoria-Gasteizko Udalak garapen iraunkorra sustatzen duten estatuko nahiz nazioarteko hainbat mugimendurekin bat egitea eta horiekin elkarlanean aritzea ekarri du berekin ingurumenaren alorreko ardura berezi horrek. Honako hauek aipa litezke, besteak beste: Europako Hiri eta Herrien Iraunkortasunerako Aalborgeko Karta sinatu zen 1995ean, eta, gerora, Tokiko 21 Agendari babes politikoa emateko erabakia onetsi da, baita 21 Agendaren Ingurumen Ekintzarako Plana ere -2002-2007 urteetarako-, eta 21 Udalsarera atxiki da Vitoria-Gasteizko udalerrria.

Kaleak garbitu eta hondakinak jaso eta tratatzeari dagokionez, udalerriei aitortzen die eskumena Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, eta orobat adierazten du arlo horretako zerbitzu publikoak eskaintzeko obligazioa dutela (26. artikulua), banaka nahiz elkaturik.

Nabarmen bilakatu dira azken urteotan Vitoria-Gasteizko udalerrian kale garbiketaz eta zabor bilketaz arduratzen diren udal zerbitzuak, sortzen diren hondakinak -kontsumoaren hazkundearekin batera- erruz ugaltu direlarik. Arlo horretan udalerriak dituen beharrei erantzungo dien udal araudi berri bat taxutzeko premia ekarri du ahalegin horrek berekin.

Ordenantza honen edukiari gagozkiolarik, nabarmendu beharrekoa da zeharkako izaera duela, eta denboran irauteko asmoz egina dela; hain zuzen ere, argi erakusten dute hori artikuluetan, han-hemenka, udalari nahiz udal zerbitzu teknikoei egiten zaizkien aipamen ugariak, ordenantza benetan aplikatzeko orduan udal osoak esku har dezala lortu nahi baita hartara.

Leku publikoen kalitatea bermatzea du helburu ordenantzak, besteak beste, eta zabor bilketaren eta kale garbiketaren alorrean udalerrian bideratzen diren estrategiei dagokionez bai administrazioak, bai herritarrek jarrera arduratsua hartzeko beharra dakar horrek berekin. Hain zuzen ere, hori galdatu ahal izateko, tresna berriz hornitu da udala, besteak beste herritarrei etxeko hondakinak bereizteko lanak erraztu eta horien gaikako bilketa hobetze aldera.

Zeharkako izaera izateaz gain, ingurumenaren alorrean indarrean dauden udal arauen multzoan txertatuko da ordenantza hau, eta erlazio berezia izango du udal zaborteziaren nahiz garbigunearen araudiekin.

Bestalde, azpimarratzekoa da ahalegin handia egin dela 1992ko uztailearen 17ko Garbiketari buruzko Udala Ordenantza indarrean egon den hamabi urteotan praktikan emaitza oso onak izan dituzten zenbait alderdiri eusteko, nahiz eta, aldi berean, hura eguneratu eta egokitzeko premiari erantzun, hau da, Vitoria-Gasteiz bezalako populazio handiko udalerrri bati XXI. mendeak eskatzen dionera moldatu.

Ildo horretatik, ontzien alorreko legediko azken berrikuntzak sartu dira testuan, Europako Elkartearen 94/62 jarraibidea gure ordenamendu juridikora aldatu zuen Ontziei eta Ontzi-hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legean aurreikusi eta gerora apirilaren 30eko 782/1998 Errege Dekretuan garatu zenera egokitzeko.

Halaber, hondakin gaikako bilketari dagokionez, apirilaren 21eko 10/1998 Legean finkatutako arauetara moldatu da ordenantza, baita 21 Agendaren Ingurumen Ekintzarako Planean finkatutako helburuetara ere.

Lehenengo aldiz, berriazko aurreikuspenak egin dira hiri hondakin solidoen bilketa pneumatikorako sistema dela eta. Hartara, buzoiaren erabilerrari buruzko arauak finkatu dira, baita udal zerbitzu teknikoei nahiz behar bezala baimendutako langileei barne instalazioak ikuskatu, onik zaindu eta konpontzeko zereginak leporatu ere, bilketa pneumatikorako sistemaren funtzionamendu zuzena bere osotasunean bermatzerik izan dadin. Eta, horrekin batera, beren instalazioetara sartzeko erraztasunak eskaini eta horietan



gertatzen den edozein matxuraren berri berehalakoan emateko obligazioa ezarri zaie jabe komunitateetako lehendakari, idazkari eta administratzaileei, baita hori ez betetzeagatik ordaindu beharko den isuna finkatu ere.

Arreta berezia merezi du IX. kapituluak -Erregimen zigortzailea-; izan ere, Tokiko Gobernu eraberritzeko neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legean finkatutako ordenamendu juridikora egokitu dira bertan jasotakoak, eta, hartara, beharrezko zuen babes legala ematen zaio udalaren zigortzeko ahalmenari, lehendik ez baitzegoen arautua alor hori. Horrenbestez, arau-hausteen tipifikazioa finkatu da, baita arau-hauste horiei dagozkion zigorrak ere, delako legean emandako irizpideei jarraiki finkatu ere, hau da, legezkotasun-printzipioa betetzen delarik.

Gainera, Vitoria-Gasteizko udalerraren baitako antolakuntza, sistematizazioa eta kontrola bere egiten ditu ordenantza honek, eta, erregimen zigortzailea jasotzen badu ere -ezin baitzuen beste modu batean izan-, araudia kontzientziazioaren eta informazioaren bitartez betearaztea da udalaren borondatea. Hain zuzen ere horretarako, herritarren artean kontzientziazioa eta informazioa sustatzeko, berariazko programak bideratuko ditu.

Azkenik, nabarmentzekoa da ordenantzaren luzera, guztira 151. artikuluko hartzen baititu bere baitan, bederatzi kapitulutan banatuta, baita xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ere, eta eranskin bat, non salaketa-orriaren eredia jasotzen baita (aurreko ordenantzan ez bezala). Araututako gaiaren alderdi guztiak jorrazten dituen ordenamendu zehatza eskaini nahi da horrenbestez.

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

1. Ondoren adierazten diren egoerak, jarduerak eta portaerak arautzea du xede ordenantza honek, Vitoria-Gasteizko Udalaren eskumen-esparruaren baitan:

- Bide publikoak garbitzea, herritarren erabilera komun orokorrari dagokionean, baita udalaren jabegoko orubeak ere. Halaber, jabego pribatuko orubeak ikuskatu eta horien garbiketa subsidiarioa egitea.
- Kaleko agerraldi publikoen ondorioz udalerrian sortzen diren zikinkeria-egoerei aurre egitea, eta udalaren jabariko ondasunak garbitzea, erabilera komun berezi eta pribatiboari dagokionean.
- Leku publikoak eta udalaren jabariko ondasunak, oro har, garbi eta txukun edukitzea.
- Etxetako kontsumoaren ondorioz sortutako zaborrak eta hondakin solidoak biltzea, baita beren ezaugarriak direla-eta horien parekotzat jo daitezkeen bestelako hondakin-materialak ere, eta, oro har, era guztietako zaborrak eta hiri edo udal hondakinak, hirigunean sortuak direlarik eta horiek biltzea udalari dagokielarik.
- Hondakinen gaikako bilketa egitea, udal eskumenen esparruan.
- Galdutako janariak, altzari eta tresnak, hildako animaliak, bertan behera utzi-tako ibilgailuak eta bestelako hondakin bereziak biltzea.
- Obra, eraikuntza, eraisketa eta bestelako jardueren ondorioz sortzen diren lurrak, hondakinak eta antzeko materialak pilatu, kargatu, garraiatu eta behar den lekuan botatzea.
- Udalaren eskumenekoa den neurrian, gorago aipatutako hondakinak tratatu, baliatu, gorde nahiz suntsitzeko sistema eta ekipamenduak kudeatu, kontrolatu eta ikuskatzea.

2. artikulua.- Definizioak

BIDE PUBLIKOA: Garbiketari dagokionez, honako hauek joko dira bide publikotzat: kaleak, ibiltokiak, hiribideak, espaloiak, bulebarrak, zeharkaleak, plazak, zirkulazio bideak, parkeak, lorategiak, bide-tunelak eta erabilera publikoko bestelako ondasunak, zuzenean herritarren erabilera komunerako direlarik, baldin eta, kalifikazio juridikoari dagokionez, titulartasun eta mantentze publikoak badira. Udal jabetzako urbanizatu gabeko eremuetan eta udalak, udal erakunde autonomoek nahiz menpeko erakundeek kudeatutako espazio publikoetan ere aplikatuko dira araudi honetan jasotzen direnak.

HIRI ALTZARIAK: Honako hauek sartuko dira horien barruan: zuhaitzak, eserlekuak, paperontziak, jolastokiak, iturriak, farolak, seinaleak, hondakinentzako edukiontzia, estatutuak, eskulturak, lorontziak, kioskoak, markesinak eta udalak bide publikoan jarritako bestelako elementuak.

HONDAKINA: Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen eranskinean ageri diren kategorietakoren bateko edozein substantzia, objektu, gai edo produktu, hura daukanak bota egiten duelarik, bota egin nahi duelarik nahiz botatzeko obligazioa duelarik.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

Edonola ere, halakotzat joko dira Europako erakundeek onetsitako Hondakinen Katalogo Europarrean (HKE) ageri direnak.

HIRI EDO UDAL HONDAKINAK: etxe partikular, denda, bulego eta zerbitzuetan sortzen direnak, baita, arriskutsutzat sailkatuta ez daudelarik, beren ezaugarriak edo konposizioa aintzat hartuta aurreko leku edo jardueretan sortzen direnen parekotzat jo daitezkeenak ere.

Hiri hondakintzat joko dira honako hauek ere:

- Bide publikoak, berdeguneak eta aisialdirako lekuak garbitzetik sortutako hondakinak.
- Hildako etxeko animaliak, baita bertan behera utzitako altzari, tresna eta ibilgai-luak ere.
- Eraikuntza obra txikietatik eta etxeko konponketetatik sortzen diren hondakinak.

HONDAKIN ARRISKUTSUAK: 952/1997 Errege Dekretuan onetsitako hondakin arrisku-tsuen zerrendan ageri direnak, baita beren baitan halakoak eduki dituzten ontziak ere. Autonomia erkidegoko nahiz Europako Batasuneko araudietan arriskutsutzat sailkatuta-koak.

PREBENTZIOA: Hondakinak sortzea galaraztera nahiz hondakinak edo horiek beren baitan dituzten gai arriskutsu edo kutsatzaileak murriztera bideratutako neurriak.

KUDEATZAILEA: Hondakinen kudeaketaren baitako edozein jarduera egiten duen pertsona edo erakunde publiko nahiz pribatua, hondakinen sortzailea izan ala ez.

BERRIRO ERABILTZEA: Erabilitako produktu bat, zertarako diseinatu zen, berriro horretarako erabiltzea.

BIRZIKLATZEA: Hondakinak ekoizpen prozesu baten baitan eraldatzea, hasieran zuten erabilera edo beste bat emateko -konposta egitea eta biometanizazioa barne-, baina ez energia berreskuratzeke errausketa.

BALIOA EMATEA: Gizakien osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumenari kalte egin diezaiokeen metoririk erabili gabe hondakinen baitako baliabideak aprobetxatzeko aukera ematen duen prozedura oro.

SUNTSITZEA: Hondakinak bota edo, osorik nahiz partez, deuseztera bideratutako prozedura oro, gizakien osasuna arriskuan jarri gabe eta ingurumenari kalte egin diezaiokeen metoririk erabili gabe egiten delarik.

GAIKAKO BILKETA: Hartzitu daitezkeen gai organikoak eta birzikla daitezkeen gaiak bereizirik biltzeko sistema, baita balioa eman dakiekeen hondakinen baitako gaiak banatzeko aukera ematen duen bilketa berezia egiteko beste edozein sistema ere.

ZABORTEGIA: Hondakinak lurrazalean nahiz lurpean utziz suntsitzeko instalazioa.

3. artikulua.- Aplikazio-esparrutik baztertuak

Inolaz ere ez dira sartuko aurreko idatz-zati horietan hondakin arriskutsuak, salbu eta horretarako diren udal instalazio mugikor nahiz finkoetan uzten direnak, baldin eta horiek arautzen dituzten araudiak betetzen badira.

4. artikulua.- Garbiketa-zerbitzua egiteko kontratatuko enpresak

Ordenantza honetan finkatutako bete beharra izango dute herritar guztiek, garbiketa publikoa egin nahiz hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzua eskaintzeko kontratatzen diren enpresei -unean unean indarrean dagoen kontratuaren arabera, eta beti ere udalak ematen dizkien jarraibideen arabera- dagozkien betebeharrak gorabehera.

5. artikulua.- Aplikazioa analogikoa

Beren ezaugarri eta zirkunstantziengatik ordenantza honen aplikazio-esparruan sartzen direlarik ere bertan araututa ez dauden kontuei analogiaz aplikatuko zaizkie bertako arauak -dena delako kasuaren antzekoak arautzen dituztenak-, eskubideak mugatzen dituzten arauak eta arau zigortzaileak izan ezik.

6. artikulua.- Herritarren laguntza

1. Vitoria-Gasteizko pertsona fisiko nahiz juridikoak oro behartuta egongo dira, udal-erriaren garbitasunari dagokionean, zikinkeria eragotzi eta galarazteko moduan jokatzea.
2. Halaber, garbitasun publikoaren alorrean ikusten dituzten arau-hausteen berri eman ahal izango diote udal agintaritzari, baita ziurtasun osoz jakitun egiten direnen berri ere.
3. Udalaren erantzukizuna izango da herritarren erreklamazio, salaketa eta iradokizunei erantzutea, kasuan kasu behar diren ekintzak bideratuz.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

7. artikulua.- Betetzeko obligazioa

1. Herritar guztiak daude behartuta ordenantza hau behar bezala betetzera, baita beronen osagarri gisa udalak edozein unetan ematen dituen bestelako xedapenak ere.
2. Beti ere, ordenantza hau berehalakoan bete dadila galdutako du udal agintaritzak; hortaz, arau-hausteren bat egiten delarik, berori zuzentzeko eskatuko dio egileari kaute-lazko neurri gisa; horrek, nolana ere, ez du galaraziko gerora erantzukizunak eskatzea.
3. Dagokien udal zerbitzuek hala proposaturik, zigorra jarri ahal izango die udalak beren jokabidearekin ordenantza honetan xedatutakoa urratzen dutenei, halakoetarako aurre-rago finkatzen den erregimen zigortzailearen ildotik jarri ere.
4. Jabego publikoan egindako kaltea konpontzeak nahiz usurpatutakoa lehengoratzek berekin dakarten kostuaren ordainetan, komunitateari mesede egiten dioten zerbitzuak hartu ahal izango ditu udalak, dena delakoari dagokion zigorra gorabehera .

8. artikulua.- Udalak garbitze lanak besteren ordeztu egitea

1. Udalak besteren ordeztu egin ahal izango ditu hondakinak garbitu, bildu eta garraiatzeko lanak, hau da, ordenantza honen arabera lan horiek zuzenean egitea dagokien pertsona fisiko nahiz juridikoen ordeztu, eta gero eskainitako zerbitzuen kostua haiei leporatu, kasuan kasu dagozkien erantzukizunak gorabehera.
2. Aurreko idatz-zatian adierazitako modu berean, higiezin kanpoko elementu eta partea onik zaindu, konpondu eta garbitzeko lanak egin ahal izango ditu udalak besteren ordeztu, baita bertan behera utzitako hondakin-materialak kargatu, erretiratu, garraiatu eta suntsitu ere.

9. artikulua.- Ordenantza sustatu eta betetzen den zaintzea

1. Partikularrek, boluntarioek, auzo elkarteek, finka-administratzaileek, auzo komunitateetako administratzaileek, federazioek, merkataritza sektoreek eta bestek garbiketa publikoaren eta hondakinen bilketa eta garraioaren alorrean sustatzen dituzten ekintzen alde egin eta laguntza emango du udalak, hau da, bultzatu egingo ditu horien jardura eta jarrera positiboak, ordenantza hau betetzea helburu dutelarik eta Vitoria-Gasteiz bizi-kalitatea hobetzera bideratuta daudelarik.
2. Auzo komunitateko administratzailearengana jo ahal izango du udalak -horiek izango baitira udal agintaritzarekiko solaskideak- baldin eta dena delako komunitateak modu jarraian urratzen badu ordenantza honetako artikuluren bat, eta hori betetze aldera batera bideratu beharreko ekintzak erabakiko ditu.
3. Oro har, ordenantza hau bete dadila zainduko du Vitoria-Gasteizko Udalak, bai berak egiten dituen ekintzetan, bai kontratu bidezko harremanetan, udalerraren garbiketari eta sortzen diren hondakinen garraio egokiari eta kudeaketa zuzenari dagokienez ardurak banatuz.

II. KAPITULUA.- GARBIKETA PUBLIKOA

I. ATALA.- HERRITARREN ERABILERA KOMUNAREN ONDORIOZ EGITEN DEN GARBIKETA PUBLIKOA

10. artikulua.- Hondakinak uztea

1. Debekatu dago hiri edo udal hondakinen bilketaren baitan sartzen diren ezau-garrietara egokitzen ez diren hondakinak, edonolakoak izanda ere, bide publikoan uztea.
2. Bolumen txikiko hondakinak, hala nola paperak, zigarro puntak, txikleak, bilga-rriak, fruta-azalak eta abar, horretarako jarritako paperontzietara bota beharko dira.
3. Bolumen handiko hondakin-materialak, edo tamaina txikikoak baina kantitate handian, ordenantza honetan xedatutakoaren arabera bildu eta erretiratuko dira, edo dagozkien bilketa zerbitzuen arabera. Dituzten ezaugarrietatik -hondakin mota, pisua edo bolumena-, erabilgarri dauden baliabideengatik, baldintza higieniko-sanitarioak zain-tzeko premiagatik nahiz une horretan udalerrian dagoen zerbitzuaren funtzionamendu zuzen eta normala galaraziko lukeelako ezinezko bada hondakinak udal zerbitzuek erretiratzeko, horien jabe diren edo beren esku dituzten edo sortu dituzten partikularrek egin beharko dute, udalak emandako jarraibideei jarraiki.
4. Debekatuta dago zigarretak, zigarroak, zigarrokinak edo piztuta dauden beste-lako materialak paperontzietara botatzea. Izatez gero, itzali ondoren bota beharko dira bertara.
5. Aldi berean debekatuta dago bide publikora ibilgailuetatik edonolako hondakinak botatzea, abian direla nahiz geldirik daudela.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

6. Galarazita dago ordenantza honen 35. artikuluan -edo ordenantza garatzen duten udal ebazpenetan- adierazten den ordutegitik kanpo bide publikoaren gainean arropa edo alfonbrarik astintzea, baita balkoi, leiho edo terrazetatik ere. Nolanahi ere, pertsona, animalia eta gauzei kalterik ez egiteko moduan egin beharko dira halakoak.

7. Ezingo dira eraikinen kanpoko aldean jarritako landareak ureztatu baldin eta horren ondorioz ura isurtzen bada edo zipriztinak botatzen badira bide publikora edo ber-tako elementuetara. Ordenantza honen 35. artikuluan finkatzen den ordutegiaren barruan ureztatu beharko da, beti ere behar bezala kontu egiten delarik inori enbarazu edo kalterik ez egiteko.

8. Debekatuta dago bide publikoan tu egitea nahiz behar fisiologikoak asetzea.

9. Debekatuta dago eraikinen edo establezimenduen leiho, terraza, balkoi, kanpo-irekidura eta abarretik bide publikora edonolako hondakinak botatzea, baita poltsetan edo bestelako ontzietan ere.

10. Debekatuta dago bide publikoa zikin dezakeen edozer egitea, bereziki bide publikoan ibilgailuak konpondu nahiz garbitzea, garbiketako ura isurtzea eta edonolako hon-dakin-materialak manipulatzeko, horretarako baimena izan ezik.

11. artikulua.- Arau orokorra

1. Bide publikoan zikinkeria sor dezaketean jarduerak oro, edonon gauzatzen direla-rik ere -eta kasuan kasu beharrezko diren lizentzia edo baimenak gorabehera-, berekin dakarte bide publikoa zikindu ez dadin beharrezko diren neurriak hartzeko obligazioa; halaber, behar adina bider garbitu beharko dute jarduerak eragindako bide publikoa ho-rien titularrak, baita sortzen diren hondakin-materialak bertatik erretiratu ere.

Hortaz, behar diren garbiketetan egin ditzala galdatu ahal izango dio udal agintaritzak jardueraren arduradunari.

2. Garbiketaren behar bezala egiteko ura presioan jaurtitzea beharrezko gertatzen den bide publikoetan, areto eta etxebizitzetan jabe eta okupatzaileak behartuta egongo dira horietara urik sartu ez dadin eta beren ondasunek kalterik izan ez dezaten behar diren neurriak hartzea.

II. ATALA.- OBREN ONDORIOZ BIDE PUBLIKOAN SORTZEN DEN ZIKINKERIA

12. artikulua.- Garbiketaren ondorengo garraioa eta kudeaketa, obra gauzatzeako proiektuan

1. Udalak obra baimena ematea eskatzen duen jardueraren orotan, arauzko gauzatze proiektua aurkeztea eskatzen duen arazo, honako hauek zehaztu beharko dira bertan: sor-tuko diren hondakinak, horiek kudeatzeko aurreikusitako ekintzak, nora eramango diren, sortutako zikinkeria garbitzeko egin beharko diren lanak, baita hondakinak sortzeak bere-kin ekarriko dituen enbarazu eta eragozpenak gutxitzeko aplikatuko diren neurriak ere.

2. Garbiketaren publikoari dagokionez, ondorengo artikuluetan betetzeko beharrezko diren neurriak jaso beharko dira, gutxienez, obraren gauzatze proiektuan, eta, halaber, honako hauek zehaztu beharko dira: obra proiektua gauzatzean baliatu beharreko garbiketaren, biltzetan eta garraio zerbitzuak, ordutegiak, egin beharreko zerbitzuen zer-nolakoak eta lan horien eragin-arloa, baita lanen segida eta garraio motak ere.

3. Obra baimena eskuratzeko gauzatze proiektua aurkeztu beharrik ez badago, idazki bat erantsi beharko zaio eskabideari, eta bertan zehaztu artikulu honetako lehen idatz-zatian adierazitakoak.

4. Udalaren obrek ere bete beharko dute kapitulu honetan jasotakoa, eta baldintza tekniko-koen orrietan zehaztuko da betebehar hori. Era berean, nahitaezkoa izango da egiten diren eskaintza tekniko-ekonomikoetan horren berri eman eta baloratzea.

13. artikulua.- Bide publikoan eragina duten obra eta lanak

1. Zikinkeria galarazte aldera, bide publikoan eragina duten lan edo obrak egiten dituztenek -bide-segurtasunerako neurriak hartzeaz gain- babestu egin beharko dute bide publikoan, eta elementu egokiak jarri obran eraitzitatekoen eta sobratutako lurren eta bestelako materialen inguruan, lanen eremutik kanpora zabaldu eta isur ez daitezkeen eta pertsonen nahiz gauzei kalteak egin ez diezaieten.

2. Bide publikoan egiten diren obrak badira, hesiak eta babesteko elementuak jarri beharko dira -bide-segurtasunerako neurriak hartzeaz gain-, baita eraisketako material eta produktuak kargatu eta deskargatzeko hodiak ere, zeinek bide publikoa zikindu ez dadin eta pertsonen nahiz gauzei kalteak egin ez dakien beharrezko diren baldintzak bete beharko baitituzte.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

3. Bereziki, bide publikoan egiten diren lubaki, kanalizazio eta besteren inguruak garbi eduki beharko dira beti, eta ez da bertan inolako hondakin-materialik utzi beharko.
4. Debebatuta dago edonolako ore edo material nahasketak egitea zuzenean bide publikoaren gainean, alde zurretik hura behar bezala babestu gabe, zikindu ez dadin.
5. Debebatuta dago materiala -hondakin-materiala nahiz beste- bide publikoan han-hemen pilatzea, egun bereko lanorduetan erabili behar dena izan ezik.
6. Eraikuntza lanetan erabiltzeko diren ibilgailuek nahitaez eduki beharko dituzte karga sakabana ez dakien beharrezko diren elementuak oro. Halaber, obretatik sortzen diren lur eta hondakinak garraiatu eta behar den lekuan botatzeari dagokionez indarrean dauden arauak bete beharko dituzte.
7. Obraren erabiltzen diren garraio-ibilgailuek bide publikoa zikintzen badute, ibilgailu horien gurpilak garbitzeko sistema bat instalatu beharko da.

14. artikulua.- Arduraduna

Eraiki, birgaitu, eraberritu nahiz eraisten ari diren eraikinen kasuan, obraren kontratistak arduratu beharko du lan horiek eragiten dioten bide publikoaren garbiketaz.

15. artikulua.- Bide publikoan egiten diren lanak eta horien garbiketa

1. Kanalizazioak egiteko, lagin-zuloak estaltzeko edo bestetarako bide publikoan lan edo obrak egiten dituzten pertsona edo erakundeek kendu egin beharko dituzte bertatik - eguneko lanaldia bukatutakoan- soberakin eta hondakinak, baldin eta behar bezala pilatuta ez badaude, ez sakabanatzeko moduan, hartara oinezkoen eta ibilgailuen zirkulazioa ez oztopatzeko. Halaber, lanaldia bukatutakoan lan horiek eragindako espazioak garbitzearen ardura izango dute beren gain.
2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa betetzen ez bada, udal zerbitzuak jaso eta garraiatuko ditu hondakinak -ezingo da kalte-ordainik eskatu horren ondorioz izandako galerengatik-, eta dena-delakoari leporatuko zaio zerbitzuaren kostua, dagozkion erantzukizunak gorabehera.
3. Metro kubikotik gora obra-hondakin sortuko bada obretan, edukiontzi egokiak erabili beharko dira horiek leku publikoan pilatzeko, hau da, zein bide publikotan kokatu behar diren, horien ezaugarrietarako neurri aipatutako edukiontziak baliatu beharko dira.

16. artikulua.- Hondakinak bide publikoan uztea

1. Debebatuta dago bide publikoan edozein hondakin-material bota, utzi nahiz isurtzea.
2. Izatekotan, udalak baimendutako elementuetan utzi beharko dira hondakinak, bide publikoko edukiontzien instalazioari dagozkionetan finkatzen diren jarraibideak aintzat hartzen direlarik.
3. Nahitaezkoa izango da obretan edukiontziak erabiltzea baldin eta bertatik sortu-tako hondakinak pilatzeko leku publikoa erabili beharra badago, eta zein bide publikotan kokatu behar diren, horien ezaugarrietarako neurri aipatutako edukiontziak baliatu beharko dira, bide publikoaren funtzionaltasuna galarazi ez dadin, ezta enbarazu larriarik sortu ere.
4. Ordenantza honetan finkatzen diren baldintzak aintzat harturik kendu beharko dira bide publikotik obretan erabiltzen diren edukiontziak, eta, edonola ere, lanak bukatu ondoren goheita lau orduen barruan. Hogeita lau orduko epea gairatzen delarik, bide publikoan utzitako materialak udalaren jabetzakoak bihurtuko dira, eta arduradunak ezingo dio inongo kalte-ordainik eskatu udalari horiek bertatik kentzeak sortzen dizkion galerengatik; gainera, berari leporatuko zaio zerbitzuaren kostua, dagozkion erantzukizunak gorabehera.

17. artikulua.- Garbitzeko obligazioa

1. Bide publikoa zikin lezakeen edozein ibilgailu kargatu nahiz deskargatzeko lanak, obra eta biltegietara egiten dituen sartu-ateratzeak eta beste amaitu ondoren, lan horien arduradunaren duten langileek -edo, horien ordean, dena delako establezimendu edo obraren titular direnek, edo, azken buruan, ibilgailuaren jabe edo gidariak-, zikindutako bide publikoa eta bertako elementuak garbitu beharko dituzte, baita isuritako materialak erretiratu ere, ordenantza honen 15. artikuluan adierazitakoa gorabehera.
2. Aurreko idatz-zatian adierazitako pertsonak izango dira -ordena berean- aipatutako kontzeptuak direla-eta ordenantza honen kontra egiten diren arau-hausteen eta horien ondorioz sortzen diren kalte eta enbarazuen erantzuleak.

18. artikulua.- Hormigoia garraiatzea

1. Debebatuta dago deskarga-zuloa hormigoia bide publikora isurtzea galarazteko behar den tresnaz itxi gabe daukan hormigoia-kamioian garraiatzea.



2. Debehatuta dago hormigoi-makinak bide publikoan garbitzea.

3. Aurreko idatz-zatietan adierazitakoak betetzen ez badira, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzule, eta, beraz, bide publikora isuritako hormigoia eta bide publikoa bera garbitzeko obligazioa izango dute, dagozkien bestelako erantzukin gorabehera.

III. ATALA.- HAINBAT JARDUERAREN ONDORIOZ BIDE PUBLIKOAN SORTZEN DEN ZIKINKERIA

19. artikulua.- Hondakin-materiala manipulatu eta aukeratzea

Debehatuta dago -udal antolakuntzak ezarritako sistemaren baitako langileak salbu- bide publikoan utzitako hondakin-materialak manipulatu eta aukeratzeko aritzea, baita bide publikoan jarritako paperontziak, edukiontziak eta bestelako ontziak arakatu eta miaztea nahiz bertatik gauzak ateratzea.

20. artikulua.- Merkataritza-establezimenduen garbiketa

Erakusleihen, denda, saltoki, merkataritza-areto eta antzekoak partikularrek garbitzen dituztelarik, ordenantza honetan xedatutakoari jarraiki egin beharko dute, bide publikoa ez zikintzeaz kontu eginez, baita oinezkoen enbarazurik ez egiteaz ere. Merkataritza-jardueraren titularra izango da horren erantzule.

21. artikulua.- Bideak garbi mantentzea

Bide publikoan debehatuta dago honako ekintza hauek burutzea:

- Edonolako hondakin-materialak galtzadetan hustu, isuri eta uztea, baita landare-zuloetan, orubeetan eta saneamendu-sarean ere. Xedapen horretatik salbuetsita egongo dira udalak ezarritako bilketa-sistemarekin behar bezala koordinatuta uzten diren honda-kin-materialak.
- Leku horietan bertan -salbu eta saneamendu-sarean- edonolako ur zikinak bota-tzea.
- Edonolako industri hondakin likidoak, solidoak nahiz solidogarrak isuri edo bota-tzea -baita saneamendu-sarera ere.
- Hildako animaliak uztea.
- Animaliak garbitzea.
- Ibilgailuak garbitzea eta konpontzea.
- Bide publikoa ez zikintzeko beharrezko diren neurriak hartu gabe garraiatzea hondakinak.
- Zikinkeria sortzen duen edo bide publikoaren garbitasun eta txukuntasunaren kontrako den edozein ekintza burutzea.

22. artikulua.- Altzariak eta tresnak uztea

1. Debehatuta dago bide publikoan altzari eta tresna partikularrak uztea, salbu eta horiek biltzeko zerbitzu bereziak erretira ditzaten uzten direnak. Helburu hori lortzeko bide publikoa erabiltzea saihesten duten zerbitzuak sustatuko ditu udalak.

2. Bide publikoan abandonatutako edozein objektu edo material -aldeztatik aurretik jakinarazi gabe ere- bertatik kentzeko ahalmena izango dute udal zerbitzuak.

3. Udal agintaritzak halakoetarako finkatutako lekuetara eramango dira udal zerbitzuak erretiratutako materialak, bertan gorde edo suntsi daitezkeen. Halakorik ez badago edo luzaroan gordetzea ezinezko bada, tratatuak izateko baliatu ahal izango dira.

4. Material horiek jaso, garraiatu eta gordetzeak berekin dakartzen gastuak honda-kinen jabeen edo sortu dituztenen kontura joango dira, dagozkien erantzukizunak gorabehera.

IV. ATALA.- HIGIEZINEN KANPOKO ELEMENTU ETA PARTEAK GARBITU ETA ONIK ZAINTEZA

23. artikulua.- Onik zaindu eta garbitu beharra

Higiezinak onik zaintzera behartuta daude horien jabeak -edo okupatzaileak, haien ordeztatuak, segurtasunari, osasungarritasunari, garbitasunari eta txukuntasun publikoari dagokienez-.

24. artikulua.- Onik zaindu eta garbitu behar diren ondorio diren betekizunak

1. Eraikinetako jabe komunitateak nahiz finka, etxebizitza eta establezimenduen jabeak behartuta daude higiezinaren fatxadak, atari zenbakien errotiluak, ageriko tarteko hormak, sarrerak, sarrerako eskailerak eta, oro har, bide publikotik ikus daitezkeen parte guztiak garbi edukitzera.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

2. Hortaz, txukuntasun publikoa zaintze aldera beharrezko gertatzen delarik -eta eskumena duten udal zerbitzuek txostena egin ondoren- eraikinak onik zaindu, garbitu edo iztuzteko lanak egin beharko dituzte jabeek.
3. Negozioen titularrak, eraikinen jabeak nahiz horiek okupatzen dituztenak behar-tuta daude beren fatxadari dagokion espaloi zatia, baita hondakinak uzteko duten lekua ere, garbi edukitzera.
4. Aurreko idatz-zatietan jasotakoa betetzen ez bada, egin beharreko obra edo lanak adierazten zaien epean egin ditzatela galdutako die udalak arduradunei.
5. Galdutakoa betetzen ez bada -eta egoerak hala agintzen badu edo interes orokorreko hobekuntzak lortuko badira-, egin behar zituztenen ordean egin ahal izango ditu udalak artikuluko honetan adierazten diren lanak -eraikinak onik zaindu eta garbitzeko obra eta lanak-, eta jabeei leporatu horien kostua -onik zaintzeko obligazioaz haragokoak ez badira-, dagozkien erantzukizunak gorabehera.

V. ATALA.- JABETZA PRIBATUKO URBANIZAZIO ETA ORUBEAK GARBITU ETA ONIK ZAINTEA

25. artikulua.- Jabetza pribatuko urbanizazioetako garbiketa

1. Jabetza pribatuko urbanizazioetan jabeei dagokie bertako espaloiak, zeharkaleak, galtzadak, plazak eta bestelako instalazio eta elementuak garbitzea, beren kontura .
2. Orobat izango da jabeen obligazioa etxadi barruko patioak, orube partikularrak, merkataritza galeriak eta antzekoak garbitzea.
3. Aurreko idatz-zatietan adierazi diren elementuen garbiketa-egoera kontrolatu eta ikuskatu egingo du udalak, eta garbi ditzatela galdutu ahal izango die horien arduradunei; udal zerbitzuek ematen dizkieten jarraibideak aintzat hartu beharko dituzte horretarako.
4. Udalak besteren ordean egin ahal izango ditu garbitze lanak -dagozkienei, aurreko idatz-zatietan adierazitakoaren ildotik, bere egin ditzatela galdutu ondoren-, hau da, ordenantza honen arabera lan horiek egitea dagokien jabeen ordean, eta gero eskainitako zerbitzuen kostua haiei leporatu, kasuan kasu dagozkien erantzukizunak gorabehera.

26. artikulua.- Orubeak eta lur sailak

1. Hiri nahiz landa eremuetako orube eta lur sailen jabe direnek zabor eta hondakinak gabe eduki beharko dituzte horiek, eta egoera egokian osasungarritasunari, higie-neari, segurtasunari eta txukuntasun publikoari dagokienez.
2. Orubeetan arratoiak hiltzeko eta desinfektatzeko lanak egin beharra ere berekin dakar aurreko preskripzioak.
3. Eraiki gabeko orubeek segurtasun-baldintza egokiak betetzen dituen 2,5 metroko altuerako hesi batez itxita egon beharko dute nahitaez.
4. Orubeak hesitu gabe edukitzen utzi ahal izango du udalak baldin eta aldi batez aisialdirako, gizarte-ongizaterako edo interes publikoko jardueretarako baliatzeak badira edo berehala gauzatzekoak diren urbanizazio planak eginak badituzte.

27. artikulua.- Udalaren esku-hartzea

1. Jabeak bertan ez badira eta, lur sailen osasungarritasunik eza dela-eta, interes publikoko arrazoiak tarteko badira, lur sailera sartu ahal izango du udalak, sarrerako ate-tik, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrean xedatutakoaren ildotik.
2. Udal zerbitzuek jabeei leporatutako dizkiete higiezinaren kanpoko elementu eta partek onik zaindu, konpondu eta garbitzeko lanei nahiz abandonatutako hondakin-materialak kargatu, erretiratu, garraiatu eta suntsitzeari dagozkien kostuak, baita beharrezko diren bestelako lanei nahiz lehengoratzeko lanei dagozkien ere, legezkiekeen erantzukizunak gorabehera.

28. artikulua.- Erabilera publikoa, hirigintza planeamenduaren arabera, jabetza pribatuko eremuetara zabaltzea

Eremu pribatuak izanik ere hirigintza planeamenduaren arabera erabilera publikoa badagokie, bere gain hartu ahal izango ditu udalak, osorik nahiz parte batean, eremu horiek zaintzeko lanak, ordenantza honekin bat etorriz.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

VI. ATALA.- BIDE PUBLIKOAREN GARBITASUNA, KALERA ATERATZEN DIREN ANIMALIAK DIRELA ETA

29. artikulua.- Animaliak edukitzea

1. Jabeak dira beren animaliek pertsoneri, beste animalia batzuei nahiz gauzei eragi-ten dizkieten kalte eta gaitzen erantzule, baita horiek bide publikoan sortzen duten zikin-keriaren erantzule ere.
2. Jabea ez badago bertan, ekintza gertatzen den unean animalia berarekin dara-man pertsona izango da haren ordezeko erantzule.
3. Animalia bategiaren batek zikinkeria sortzen badu bide publikoan, udaltzainek ahalmena izango dute, edozein unetan ere, egindako kaltea berehalakoan konpondu dezala galda-tzeko jabeari edo animalia daramanari.

30. artikulua.- Animaliek bide publikoan kaka egitea

1. Higiene neurri saihestezina izango da hauxe: txakurrak edo bestelako animaliak kalean barrena daramatzatenak behartuta egongo dira horiei bide publikoan kaka egiten ez uzte-
ra.
2. Bide publikoan dauden bitartean, udalak horretarako egokitutako edo berariaz baimen-
dutako lekuetan egin beharko dute kaka txakurrek.

31. artikulua.- Ekipamendu bereziak

1. Konpainiako animalien kakak botatzeko ekipamendu bereziak jarriko ditu udalak; hala egiten badu, seinatu egingo ditu horretarako lekuak, eta ontzi egokiak jarriko, baita horiek ahalik eta ongien erabiltzeko beharrezko diren prebentzio eta informazio sei-naleak ere.
2. Neurri horiek zertzerik ez dagoen bitartean, modu hauek izango dituzte aukeran anima-
lien jabeek nahiz animaliak berekin daramatzatenek, aurreko idatz-zatian xedatuta-
koaren ildotik:
 - Gorotza zabor poltsaren barruan botatzea, higienezaren aldetik onargarri den mo-
duan.
 - Gorotza poltsa iragazkaitz batean sartu, hori behar bezala itxi eta paperontziren bate-
ra edo udal zerbitzuek adierazten duten bestelako ontziren batera botatzea.
 - Edonola ere, bide publikoan gorotz-hondarrak geratzen bada, animalia berekin dara-
manaren obligazioa izango da horiek bildu eta erretiratzea, baita bide publikoan zi-
kindu dena garbitzea ere.

32. artikulua.- Animalien parte-hartzea eskatzen duten ospakizunak

1. Animalien parte-hartzea eskatzen duen jai tradizionalik edo bestelako ekitaldi publikorik egitekotan bide publikoan, baimena eskuratu beharko da alde aurretik. Horretarako, hain zuzen ere, dena delako ospakizunaren ondorioz sortzen den zikinkeriaren garbiketa egokia bermatuko duten giza baliabide eta bitarteko teknikoak zehaztu beharko dira es-
kabidean, edo bermea jarri, sortzen diren kalteen eta zikinkeriaren aurrean erantzuteko.
2. Udal zerbitzuaren menpeko langileek jasoko dituzte animalien gorotzak, eta lekua behar bezain garbi utziko. Lan horien gastuak dagozkionari ordainaraziko dizkio udalak, edo hark jarritako bermetik kenduko, behar den administrazio-prozedura baliatuz horretarako.

VII. ATALA.- ELURTEETAN, BIDE PUBLIKOAREN GARBITASUNA DELA-ETA, HERRITARREK NOLA JOKATU BEHAR DUTEN

33. artikulua.- Elurteak

1. Elurra egiten badu, eraikinen jabe diren edo horiek okupatzen dituztenen, nego-zioen titularren eta orubeen jabeen -edo, horien orde, arduradunen- obligazioa izango da fatxaden aurreko espaloi zatietako elurra eta izotza kentzea, oinezkoek bertatik igaro ahal izateko adina leku izan dezaten.
2. Elurra edo izotza espaloian utzi beharko da, zintarriaren ondoan, baina ez galtza-dan, ohar hauek aintzat hartuta:
 - Ez da aparkatuta dauden ibilgailuen gainean utzi beharko.
 - Ez dira ubideak oztopatu beharko, ezta ibilgailuen sarbideak eta zirkulazioa ere.
 - Libre utzi beharko da gertueneko estolda-zulo edo estolderiako erregistro-taparako bidea.
 - Bete ere, udalak une bakoitzean ematen dituen jarraibideak errespetatu eta bete be-
harko dira.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

3. Elurteak 48 ordutik gora irauten badu, gatz biltegiak jarri ahal izango ditu udalak garbitze lanak errazte aldera, baita Gurutze Gorriko, DYako nahiz antzeko beste antolakunde batzuetako boluntarioen laguntza eskatu ere.

4. Elurtea baldin badago, bide publikoa garbitzeko beharrezko diren neurriak hartu behar ditu udalak, une oro oinezkoen eta ibilgailuen segurtasuna bermatze aldera.

34. artikulua.- Bide publikora elurra botatzeko debekua

Inolaz ere ezingo da bide publikora bota eraikinetako terraza, balkoi, teilatu eta gainerakoetan pilatutako elurra, salbu eta udalak debeku horren kontrako xedapenak ematen dituelarik.

VIII. ATALA.-ORDUTEGIAK

35. artikulua.- Garbitze lan pribatueterako ordutegiak

1. Arropak eta alfonbrak astindu nahiz landareak ureztatzeko ordutegia -aurreko artikuluetan xedatutakoa bete beharko da, beti ere- gaueko 22:00etatik goizeko 10:00ak artekoa izango da. Nolanahi ere, oinezkoen enbarazurik ez egiteko moduan egin beharko dira lan horiek. Gainera, udal xedapenen bitartez ordutegi hori aldatzerik ere izango da -halakoetan, behar bezala emango zaie horien berri herritarrei.

2. Establezimendu publiko edo ostalaritzakoen terraza, mahaitxo eta gainerako elementuen garbiketa orokorra establezimendua itxi ondorengo bi orduetan egin beharko da -nolanahi ere, behar den egoeran eduki beharko dira beti, garbitasunari eta higieneri dagokienean.

III. KAPITULUA.- UDALERRIAREN GARBIKETA, ERABILERA KOMUN BEREZI ETA PRIBATIBOARI ETA KALEKO MANIFESTAZIO PUBLIKOEI DAGOKIENEAN

I. ATALA.- BALDINTZA OROKORRAK ETA APLIKAZIO-ESPARRUA

36. artikulua.- Kapitulu honen xedea

1. artikuluaaren ildotik, udalerrira garbi edukitzeko aintzat hartu beharreko arauak biltzen dira kapitulu honetan, alderdi hauei dagokienean:

1. Udal jabetza publikoko ondasunen erabilera komun eta pribatiboa.

2. Bide publikoko jardueren eta zenbait publizitate jardueren ondorioz sor daitekeen zikin-keriari aurre egitea, udalerrian.

37. artikulua.- Bide publikoaren erabilerak

1. Erabilera komun eta pribatiboen ondorioz bide publikoan sortzen den zikinkeria-ren gaineko erantzukizuna horien titularrek izango dute.

2. Jendaurreko zuzeneko salmentarako establezimenduen titularrak -hala nola ta-berna, kafetegi, kiosko, terraza, saltoki eta antzekoen titularrak eta, oro har, bide publikoan zikinkeria sortzen duen edozein jarduerarenak, horiek finkoak izan ala ez-, instala-zioak eta horien eraginpean dagoen kale zatia behar bezain garbi edukitzera behartuta daude.

3. Beren establezimenduetako kontsumoaren ondorioz sortzen diren hondakinak bota eta jasotzeko ontzi egokiak jar ditzatela galdutako die udalak aurreko idatz-zatian adierazitako titularrei; halaber, horien zeregina izango da elementu horiek garbitu eta onik zaintzea.

4. Orobat izango dute titular horiek salmentaren ondorioz establezimenduen inguruan bide publikora botatzen diren hondakinak garbitzeko obligazioa. Garbiketa hori establezimendua edo saltokia itxi ondoren egin beharko da, gehienez ere bi orduko epean -nolanahi ere, behar den egoeran eduki beharko dira beti, garbitasunari eta higieneri dagokienean.

5. Udal zerbitzuen obligazioa izango da garbiketa horren ondorioz sortzen diren hondakinak jasotzea; horretarako, ordenantza honetan adierazten den moduan eta ingurune bakoitzean aurreikusita dauden bilketa sistemen arabera aurkeztu beharko dira.

6. Obligazio horiek betetzen ez badira, udal zerbitzuak bildu eta garraiatu ditu hondakinak, eta dena delakoari leporatuko zaio zerbitzuaren kostua, horrek berekin da-kartzan erantzukizunak gorabehera.

38. artikulua.- Garbitzeko obligazioa, ekitaldi publikoen antolakuntzan

1. Jabetza publikoko espazioetan ekitaldi publikoak egiten direlarik, antolatzaileek izango dute sortzen den zikinkeria-aren gaineko erantzukizuna.

2. Udalerrian garbitasuna dela eta, ekitaldi publikoak antolatzen dituztenen obligazioa izango da udalari jakinaraztea ekitaldiak non izango diren, zein ibilbide egingo duten eta

zein ordutegi izango duten, eta antolatutako ekitaldi horien ondorioz sortutako zikinkeria behar bezala garbitu eta jasotzeko baliatuko diren giza baliabide eta bitarteko teknikoak adieraztea. Udalak, gainera, bermea jartzeko eskatu ahal izango die, baldin eta ekitaldiaren ondorioz sortzen den zikinkeria dela-eta aparteko garbiketa lanak egin behar-rra egokituko dela uste bada. Erabilitako espazioa eta inguruak egoera onean geratzen badira, itzuli egingo zaie bermea. Hala ez bada, berriz, egin beharreko aparteko lanei dagokien kopurua kenduko zaie bermetik. Dagokion fakturarekin justifikatuko du udalak kopuru hori, egindako lanak zehazten direlarik bertan.

3. Ekitaldi publiko baten ondorioz -zuzenean- hondamenik sortzen bada bide publi-koan edo bertako altzarietan, dena delako ekitaldia antolatu edo sustatu dutenak izango dira erantzule; hortaz, konpontze gastuak ordaindu beharko dituzte, legozkiekeen beste-lako erantzukizunak gorabehera.

39. artikulua.- Definizioak

1. Ordenantza honi dagozkionetarako, definizio hauek baliatuko dira:

- ERROTULUAK: pinturaz edo luzaro irauteko moduko bestelako edozein materialez egindako iragarki finko nahiz mugikorrak.
- KARTELAK: paperean edo trinkotasun gutxiko bestelako materialen baten gainean egindako iragarkiak (inprimatuak, pintatuak nahiz idatziak); neurri txikikoak badira, eta eskuz banatzekoak, esku-papertzat joko dira.
- PANKARTAK: neurri handiko publizitate-iragarkiak, aldi baterako bide publikoan jarraiak -gehienez ere hamabost egunerako-, ekitaldi publiko jakin bat dela eta.
- PINTADAK: bide publikoan eskuz egindako inskripzioak -dela eraikinen horma edo paretetan, dela egiturazko edozein elementutan nahiz hiri altzarietan.
- BANDERATXOAK: neurri txikiko publizitate-iragarkiak, elementu komun baten bati zintzilik -gehienetan eraikinen bati edo hiri altzariren bati lotuta- jarri ohi direnak.
- ERANSKAILUAK: alde batean material itsaskorra duten inprimakiak, beste edozein elementu solidotan zuzenean itsats daitezkeenak.
- ESKU-PAPER eta LIBURUXKAK: paperezko edo antzeko materialen bateko orriak, herri-tarrei bide publikoan eskura ematen zaizkienak edo edozein agerraldi publiko nahiz pri-batu dela-eta banatzen direnak.

2. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari dagokionez, salbuetsi egingo dira adminis-trazio publikoek eta enpresa-erakunde publikoek nahiz udal sozietateek interes orokorrari erantzun nahirik kaleratzen dituzten komunikazio eta oharrak.

40. artikulua.- Debekuak.

Espazio eta bide publikoen garbitasun eta txukuntasuna gordetzeko xedez, kartelak, pankartak, banderatxoak eta eranskailuak jartzea, orri-zortzirenak banatzea eta kapitulu honetan araututako edozein publizitate jarduera burutzea debekatua dago, salbu eta berariaz adierazitako tokietan eta aldeaz aurretik Udalarari jakinarazita.

Era berean, titulu honetan araututako publizitate jarduera guztiak debekatuak daude hirigintza plangintzak sailkatutako eraikinetan, Euskal Kultur Ondarearen barruan historiko-artistiko gisa sailkatu edo inbentariatutakoetan eta antzekoetan. Eraikinean burutzen diren jarduerekin zerikusia duten pankartak edo errotuluak eta eraikin horiek onik zaintzea, berritzea edo birgaitzearekin zerikusia dutenak izan ezik.

41. artikulua.- Aurretiazko jakinarazpena.

Ordenantza honen ondorioetarako, Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. bis artikuluekin bat, interesdunek administrazio publiko eskudunari haiek identifikatzeko datuak zein galdatzen zaizkien bestelako betebeharren berri emateko baliatzen duten agiria da aurretiazko jakinarazpena; datu horiek galdatzen zaizkie Udalak berariaz baimendutako tokietan publizitate elementuak ipini edo pintadak egin ditzaten baimentzeko, ordenantza honen 47.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aurretiazko jakinarazpenak Udalak berariaz baimendutako tokietan publizitate elementuak ipintzea edo pintadak egitea, ordenantza honen 47.2.a) artikuluan xedatutakoaren arabera, ahalbidetuko du, aurkezten den egunetik bertatik, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko duen ahalmena gora behera, betiere, jakinarazpenak 43. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen baditu. Aurretiazko jakinarazpena ez egitea edo bera eskuratzeko atal honetan galdatutako baldintzak ez betetzea ordenantza honetan xedatutakoaren kontra jotzen duen ez-egitea da, zigortzeko araubideari dagokionez IX. kapituluan ezarritakoaren ondorioetarako.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

Era berean, aurretiazko jakinarazpenarekin batera ematen den edozein datu, egindako adierazpen edo aurkeztutako agiritan funtsezkoa den okerra, faltsutasuna edo ez-egitea egiten bada, edo hura aurkezten ez bada, 71. bis artikuluan ezarritako ondorioak izango dira.

42. artikulua.- Hirigintza lizentzia.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 207.o) artikulua xedatutakoarekin bat, propagandako kartelak eta panelak bide publikotik ikusteko moduan jartzeko, baldin eta kartel eta panel horiek egiturazko euskarria den elementu baten kontra edo ganean ipini badira, hirigintza lizentzia eskatu beharko da. Ondorioz, kasu horietan ez da aurretiazko jakinarazpena egin behar, baina kapitulu honetan jasotako baldintzak eta araututako betekizunak bete beharko dira.

43. artikulua.- Aurretiazkoa jakinarazpenaren betekizunak publizitatea ipini edo pintaketak egiteko orduan.

Pankartak edo banderatzokak eta beste publizitate elementuak jarri edo pintaketak egin ahal izateko aurretiazko jakinarazpenak honakoa jaso beharko du:

- Publizitate elementuak edo pintaketak egingo dituzten pertsona fisiko edo juridikoak identifikatzeko datuak.
- Pankarten, banderatzoen edo bestelako publizitate elementuen neurriak.
- Publizitate elementu horiek jarri edo pintaketak egin nahi diren tokia.
- Publizitate elementu horiek zenbat denboraz izango dira toki horretan.
- Publizitate elementuak epearen barruan kentzeko ardura, kasua denean, bide publikoan edo haren egitura elementuetan eragindako kalteak konpontzekoa, bide publikoko espazioak zikindu badira horiek garbitzekoa eta elementuak jartzeak eragindako balizko kalte-ordainak ordaintzekoa duenaren konpromisoa.
- Pintaketan kasuan, pintaketa egin nahi den orubeetako hesien, gauzatzen ari diren obren itxituren, ikusten diren mehelinen edo behinbehineko elementuen jabeak emandako baimena.

II. ATALA.- PUBLIZITATE ELEMENTUAK JARTZEKO MODUA

44. artikulua.- Publizitate elementuek bete beharrekoak.

1. Udalak berriaz baimendutako tokietan publizitatea jartzeko honakoak bete beharko dira:

- Kartelaren publizitateak ez du baimendutako tokiko azalaren ehuneko hogeia baino gehiago beteko.
- Baimendutako propaganda baino ezin izango da agertu pankarta eta banderatzoketan, beraz, debekatua dago eskabidean eskatu ez den edozein eta azalaren ehuneko hogeia baino gehiago betetzen duena.
- Debekatuta dago pankarta edo banderatzokak zuhaitzei helduta jartzea, lotzekoa edozein delarik.

2. Bide publikoko egitura elementuei lotutako pankarta eta banderatzokak honakoak bete beharko dituzte:

- Farolei lotutakoak: Farolaren puntu bakarrean eutsiko dio.

Euskarria ezingo da metalezkoa izan. Debekatuta dago pankarta edo banderatzokak farola artistikoetan jartzea.

- Pankartetan zulotxoak egin beharko dira haizearen eragina gutxitzeko, edozein modutan, zulatutako azalera hori ezin izango da ehuneko 25 baino txikiagokoa.
- Nolanahi ere, bide publikoko punturik baxuenetik, gutxienez, 5 metrora jarri beharko da.

45. artikulua.- Bermea.

Udalak bermea eratzeko eskatu ahal du publizitate elementu horiek bide publikoan jarri edo banatzeagatik, hain zuzen, espazio publikotik hondakinak edo zikinkeria eragin dezaketen elementuak garbitu edo kentzeak eragin ditzakeen gastuei dagokien zenbatekoaren araberakoa, eska daitekeen erantzukizuna gorabehera.

Udalak informazioa zabaltzeko espazio eta euskarriak hornituko ditu hirian zehar.

46. artikulua.- Kentzea

Pankartak eta banderatzokak horiek jartzearen ardura izan edo jartzea sustatu duten pertsonak kendu beharko dituzte, aurretiazko jakinarazpenarekin adierazitako epea amaitu be-



zain azkar. Hala egin ezean udal zerbitzuek kenduko dituzte eta arduradunei leporatuko zaizkie emandako zerbitzuaren kostuak, eska lekizkiekeen bestelako eran tzukizunak gorabehera.

III. ATALA.- PINTADAK

47. artikulua.- Debekua

1. Debekatuta dago bide publikoan edonolako pintadarik egitea, hala egiturazko elementu, galtzada, espaloi eta hiri altzarrietan, nola horma, pareta, estatua mo-numentu edo udalerriko bestelako kanpo-elementutan.

2. Aurreko atalari dagokionez salbuespen izango dira honakoak:

- Orubeetako hesietan, gauzatzen ari diren obren itxituretan, ikusten diren mehelinetan edo behin-behineko elementuetan egiten diren pintaketak, aurretiazko jakinarazpena behar dutenak ordenantza honen 41. artikuluan xedatutakoaren arabera eta jabeak berariaz baimendutakoak.
- Udalak, edozein momentutan eta dagozkion udal zerbitzuen bidez, pintaketak ezabatu edo kendu ahalko ditu.

48. artikulua.- Udal zerbitzuak pintadak garbitzea

1. Pintadak garbitzeko lanak egin ahal izango ditu udalak eraikinetan -bere antola-kuntza eta programazioari jarraiki nahiz herritarren eskariei erantzunez-, udalerrira garbitasun eta txukuntasun egoera onean egon dadin beti ere.
2. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango garbiketa hori dela-eta dena delako eraiki-nari egiten zaion edozein kalteren aurrean, baldin eta lanak modu egokian ikuskatu badira eta udal zerbitzuek dituzten baliabideak erabiliz egin badira.
3. Higiezinaren jabeak berariaz agertzen badira udalak garbiketa lan horiek egitea-ren kontra, 10 eguneko epean berek egin ditzatela galdatu ahal izango die hark. Eskatu beza-la egiten ez badute, haien kontura egingo dira.
4. Pintadak garbitzeko lan horiek egiterakoan, ez dira aintzat hartuko garaje sarrera eta sarbideak, ezta eraikinen kanpoko fatxadetz bestelako gainerako eremu pribaturik ere.
5. Katalogazio berezia duten eraikinetan egiten badira pintadak, al bait lasterren garbituko ditu udalak, modu subsidiarioan.

IV. ATALA.- ESKU-PAPERAK ETA ANTZEKOAK BANATZEA

49. artikulua.- Publizitate idatzia

1. Debekatuta dago bide publikoan edonolako esku-paperak, testu inprimatuak edo antzekoak sakabanatu eta botatzea.
2. Dagokien udal zerbitzuak arduratuko dira esku-paper edo liburuxkak banatu edo sakanbanatzearen ondorioz zikindutako hiriko espazioa garbitzeaz, eta erantzule direnei leporatuko zaie, ondoren, eskainitako aparteko zerbitzu horien kostua, dagozkien erantzukinak eta ezar lekizkiekeen zigorrak gorabehera.

IV. KAPITULUA.- HIRI EDO UDAL HONDAKINEN BILKETA

I. ATALA.- BALDINTZA OROKORRAK ETA ZERBITZUAK ESKAINTZEKO ESPARRUA

50. artikulua.- Bilketa-zerbitzua

1. Hiri eta udal hondakin eta zaborrak biltzeko zerbitzuak udalak nola eskainiko di-tuen eta erabiltzaileek nola baliatu beharko dituzten arautzea du helburu kapitulu honek.
2. Zerbitzu horiei dagozkienez, udalerriko biztanle eta auzotar guztiak joko dira erabiltzaitzat, eta indarrean dauden xedapenetan eta ordenantza honetan jasota-koak aintzat harturik baliatu beharko dituzte.

51. artikulua.- Hiri edo udal hondakinaren definizioa

Ordenantza honi dagozkionetarako, ondorengo zerrendan ageri direnak joko dira hiri edo udal hondakintzat:

1. Herritarrek beren etxeetan sortutako janari hondarrak eta kontsumo hondakinak,
2. Bide publikoa garbitzetik sortutako hondakinak.
3. Etxeetako obra txikieetatik sortutako hondakinak.
4. Zuhaitzak inaustetik eta landareak mantentzetik sortutako hondarrak.
5. Merkataritza-aretoetan pilatutako pakete-azalak, ontziak, enbalajeak eta beste-lako hondakin solidoak.



6. Zerbitzu, merkataritza, ekipamendu eta industria jardueren ondorio diren hondakinak, baldin eta etxeetako hondakinen parekotzat jo badaitezke -zer nolakoak diren eta zer bolumena duten aintzat harturik- eta Vitoria-Gasteizko hiriguneko bizitoki-auzoetan sortuak badira.
7. Tabernetan, jatetxeetan eta ostalaritzaren gremioko bestelako establezimenduetan sortutako hondakinak. Halaber, supermerkatu, merkatu, merkatu txiki, auto-zerbitzu eta antzeko establezimenduetan sortutakoak.
8. Egoitzetan, hoteletan, ospitaleetan, kliniketan, ikastetxeetan, akademietan, bulegoetan, etxebizitzetako jarduera profesioetan, bankuetan, erakunde publikoetan, zinema-aretoetan eta bestelako establezimendu publiko edo jendaurrekoetan sortutako kontsumo-hondakinak, oro har.
9. Altzariak, etxeko tresnak eta traste zaharrak, baita arropa, oinetakoak eta antzeko beste edozein produktu ere.
10. Etxeetako olio begetal erabiliak.
11. Hildako etxeko animaliak.
12. Etxeko animalia edo konpainiakoen gorotza, modu egokian botatzen delarik, ordenantza honetan xedatzen denaren arabera.
13. Erabiltzeari utzitako ibilgailuak, baldin eta bertan behera utzitakotzat jo badaitzke eta hilabete baino gehiago badaramate bide publikoan.
14. Etxeetako berokuntza eta tximinietako errautsak.
15. Aurrekoen parekotzat jo daitekeen beste edozein hondakin.

52. artikulua.- Hiri edo udal hondakintzat joko ez direnak

A) Ez dira hiri edo udal hondakintzat joko eta, beraz, udal zerbitzutik kanpo gera-tuko dira honako hauek:

1. Gaika bildutako honako hauek (udal hondakinak nahiz merkatarizatit, indus-triatik eta erakundeetatik sortutakoak izanik horien parekotzat jo daitezkeenak):

- Pintura, tindu, erretxina eta itsasgarriak.
- Disolbatzaileak.
- Argazkilaritzako produktu kimikoak.
- Pestizidak.
- Hodi fluoreszenteak eta merkurioa duten bestelako hondakinak.

2. Pilak eta metagailuak:

- Berunezko bateriak.
- Ni-Cd bateriak.
- Merkuriozko pila lehorrak.
- Pilen elektrolitoa eta metagailuak.

3. Erabilitako olioak -jateko landare-olioak salbu-, hala nola erabilitako olio hi-draulikoak eta balazta-likidoak eta horien parekotzat jo daitezkeen bestelako gaiak.

4. Medikuntza eta albaitaritza zerbitzuetako nahiz horiekin lotura duten ikerketa zerbitzuetako hondakinak, salbu eta sukalde eta jatetxeetakoak, zuzenean osasun-zainketetatik sortzen ez direnak:

- Amaetxeetako hondakinak, giza gaixotasunen diagnostiko, tratamendu edo prebentziotik sortutakoak eta infekzioak saiheste aldera arau bereziei jarraiki jaso eta suntsitu beharreko bestelako hondakinak.
- Animalien gaixotasunen ikerketa, diagnostiko, tratamendu edo prebentziotik sortutako hondakinak, infekzioak saiheste aldera arau bereziei jarraiki jaso eta suntsitu beharreko hondakinak eta botatzeko diren produktu kimi-koak.

5. Ospitale, klinika sorospen-zentroetako detrituak, 51. artikuluan zehaztutako parekotzat jotzerik ez badago.

6. Hiriguneko bizitoki-auzoetatik kanpo kokatutako jarduerak sortutako edono-lako hondakin solidioak.

7. Harakintzan sortutako azpiproduktu organikoak.

8. Aipatutako ez gain, udalak egoera berezietan hala erabakitzen duen guztiak.

B) Zerbitzu finko nahiz mugikorrek ezarri ahal izango dituen udalak artikuluan honetan adierazitako hondakinak zenbait onartzeko, baldin eta dagokien udal araudia betetzen badute eta, pisua, ezaugarriak eta bolumena aintzat harturik, etxeetako hondakinen parekotzat jo badaitezke.



53. artikulua.- Hondakin bilketa egiteko baimendutako pertsonak

1. Udalak baimendutako zerbitzuak bakarrik egongo dira gaituta hondakinak bil-tzeko. Beraz, debekatuta dago beste edozein pertsona fisiko nahiz juridikok hon-dakinak biltzeko lanak egitea.
2. Merkatariek, elkarteek, federazioek, boluntarioek, GKEek eta bestek antolatzen dituzten zerbitzu pribatuak sustatu ahal izango ditu udalak, baldin eta udalerrria-ren garbitasunari eta ingurumenari mesede egingo badiote.

54. artikulua.- Hondakinen jabetza

1. Zabor eta hondakinak bide publikoan uzten direlarik -dena delako zerbitzuek noiz jasoko-, udal jabetzakoak bihurtuko dira.
2. Bilketari dagokionean, hondakin-materialak bide publikoan uzten diren edo horiek jasotzeaz arduratzen diren langileei ematen zaizkien uanean bertan gauzatuko da aurreko idatz-zatian adierazitako zaborren eta hiri-hondakinen gaineko udal jabe-tza.
3. Edozein motako hondakinak eta hiri hondakin solidoak bildu eta aprobetxatzea debekatuta dago, baita bide publikoan bilketa zerbitzuek jasotzearen zain dauden edozein hondakin gai hautatu, sailkatu eta bakantzea ere, baimendutako kudeatzaileek burututakoa izan ezik.

55. artikulua.- Bilketa-zerbitzua

1. Honako hauek hartuko ditu aintzat hondakinak bildu, tratatu eta suntsitzeko zerbitzuak:
 - Hiri-hondakin arruntak: eguneroko jardueraren ondorioz sortutako hondakinak: funtsean, etxeetako zaborra.
 - Hiri-hondakin bereziak: ohikoak ez diren hondakinak: animalia hilak, altzariak eta tresnak, bertan behera utzitako ibilgailuak eta antzekoak.
2. Horrez gain, nahitaez eskaini beharreko prestazioa ez izan arren, bestelako hon-dakinak tratatu eta suntsitzeko zerbitzua ere eskaini ahal izango du udalak noiz edo noiz. Zerbitzua noiz edo noiz eskain dakion, udal zerbitzuetara jo eta eskaria egin beharko du erabiltzaileak.

56. artikulua.- Zerbitzuagatik ordaindu beharreko tasa

1. Urtero-urtero finkatuko du udalak bide publikoa garbitu eta hiri-hondakin solidoak biltzeko zerbitzuei dagokien tasa. Dena delako ordenantza fiskalean zehazten denari jarraiki ordaindu beharko dute tasa erabiltzaileak.
2. Beren ezaugarriengatik -bildu, garraiatu, balioa eman nahiz suntsitzeko orduan- enbarazua sor lezaketen hiri hondakinak sortzen dituzten edo halakoak dauzkatenean udalari horien jatorriari, kantitateari eta ezaugarriei buruzko informazio zehatza emateko obligazioa izango dute. Aurrekoa gorabehera, udalak uste badu -eskumena duten erakundeek egindako txostenak aintzat harturik- ezaugarri arriskutsuak dituztela merkataritza-aretoek sortutako hiri hondakinek -edo bildu, garraiatu, balioa eman nahiz suntsitzea zailtzen duten ezaugarriak-, berak jaso aurretik ezaugarri horiek ahal den neurrian desagerrarazi edo murrizteko beharrezko diren neurriak hartzea edo leku eta modu egokian uztera behartu ahal izango du horiek sortu dituen edo bere esku dauzkana. Idatz-zati honetan araututako kasuetan, baita etxe partikularretan sortutako hiri hondakinez bestelakoak direnean ere, udalak -arrazoi justifikatuak direla medio- hondakinak berek kudeatzera behartu ahal izango ditu horiek beren esku dauzkatenean, zein bilketa tasatik salbuetsi ahal izango baititu, baina ez, inolaz ere, hondakinen trata-menduari dagokion tasatik.

57. artikulua.- Bilketa-zerbitzua hondakin bakoitzera egokitzea

Debekatuta dago hondakinak biltzeko zerbitzuei zerbitzu mota bakoitzari dagozkionez bestelako hondakinak ematea. Era berean, debekatuta dago hondakinak udal zerbitzuen kasu bakoitzerako berariaz adierazitakoez bestelako ontzietan uztea.

58. artikulua.- Udal zerbitzuek hondakinak onartzeko irizpidea

Gorago adierazitakoari dagokionez, eta zalantzarik izanez gero, udalak argitu eta erabakiko du hondakinak onar daitezkeen ala ez, baita zein bilketa mota dagokien ere.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

II. ATALA.- ETXEETAKO ETA MERKATARITZA-ARETOETAKO ZABORRAK **BILTZEKO ZERBITZUA**

59. artikulua.- Udalaren bilketa-sistema

1. Honako hondakin hauek jasotzeaz arduratuko da etxeetako hondakinak biltzeko zerbitzua:
 2. 51. artikuluko 1. idatz-zatian, 7.ean -ostalaritzakoak-, 8.ean eta 12.ean adierazitakoak.
 3. Honako hondakin hauek jasotzeaz arduratuko da merkataritzako hondakinak biltzeko zerbitzua:
 4. 51. artikuluko 2. idatz-zatian, 5.ean, 6.ean eta 7.ean -ostalaritzaz beste- adierazitakoak.
 5. Honako hondakin hauek jasotzeaz arduratuko da tresnak biltzeko zerbitzua:
 6. 51. artikuluko 9. idatz-zatian adierazitakoak.
 7. Hiriguneko bizitoki-auzoetan kokatutako merkataritza sektorean sortu-tako tresnak eta bolumen handiko hondakinak garbiguneetan utzi ahal izango dira, horien araudia betetzen delarik. Zenbatean behin sortzen diren, zer pisu edo bolumen duten, hala-koak sortzea ekoizpen prozesu propioarekin zuze-nean lotua dagoen eta horien kudeaketa egokiari buruzko berariazko lege edo araudirik dagoen aintzat harturik erabakiko da sortzen dituztenek bilketa eta tratamendu propioa egiteko obligaziorik duten -hondakinei balioa ematea barne, teknikoki posible bada.
- 4.51. artikuluko 3. eta 4. idatz-zatietan adierazitako hondakinak garbiguneetan utzi behar-ko dira, horien araudia betetzen delarik. Zenbatean behin sortzen diren, zer pisu edo bolumen duten, halakoak sortzea ekoizpen prozesu propioarekin zuze-nean lotua dagoen eta horien kudeaketa egokiari buruzko lege edo araudi propio-rik dagoen aintzat harturik erabakiko da sortzen dituztenek bilketa eta trata-mendu propioa egiteko obligaziorik duten -hondakinei balioa ematea, teknikoki posible bada, edo dagozkien tratamendu lantegietara eramatea barne.
- 5.51. artikuluko 10. idatz-zatian, 11.ean eta 13.ean adierazitako hondakinak jaso-tzeko bilketa berezia egingo da, udalak zehazten dituen baldintzekin.
6. Hiriko eremu jakinetan etxeetako hiri hondakinak eta horien parekotzat jo daitezkeenak sistema pneumatikoen bitartez bil daitezela erabaki ahal izango du udalak. Hala-koetan, zona bakoitzean zein teknologia erabili behar den adieraziko du, sis-temen arteko bateragarritasuna bermatze aldera.
- Zona horiek lur urbanizagarrian edo finkatu gabeko hiri lur-rean badaude, sare orokorraren eraikuntza eta instalazioa aurreikusi behar-ko da horietan egiten diren urbanizazio obretan; hau da, espazio publikoetan baimentzen diren bilketa-lekuak, zaborra bilketa-lekuetatik garraiatzeko sarea eta bilketa-zentrala. Orobat aurrei-kusi behar-ko da gutxienez hartune bat lur sail bakoitzeko.
- Sustatzaile bakoitzak, berriz, barne sarea eraiki eta instalatu behar-ko du, hau da, zaborrak botatzeko lekuak edo buzoiak, lur sailaren barruan kokatuak -eraikitzea aurreikusten den azalerako nahiko izan behar-ko baitute- eta lur sailaren hartune-rainoko garraio-sarea. Honela kokatu behar-ko dira buzoiak: edozein ataritatik ere ez du izan behar-ko 50 metro baino gehiago gertuenekoraino -zabor mota bakoi-tzeko-; gehienez ere bosteko multzoetan jarri behar-ko dira, eta elkarrengandik gutxienez 25 metrora egon behar-ko dute, udal zerbitzu tekniko- en ustez hala ez izateko arrazoi justifikaturen bat dagoenean izan ezik.
- Nolanahi ere, bai sare publikoa bai barne sareak direla-eta behar diren jarduera eta irekitze baimenak eskatu behar-ko dira.
7. Aipatutako zerbitzu horietan guztietan Vitoria-Gasteizko Udal Hondakinak Kudea-tzeko Plan Integralaren mamia aintzat hartuko da. Izan ere, hainbat helburu es-trategiko biltzen ditu plan horrek bere baitan, eta oinarritzko lehentasuntzat jo-tzen hondakinak sorlekuan bertan urritu edo murriztea eta ondoren, jadanik sor-tuak direlarik, horiek berritoki erabili eta birziklatzeko prozesuak bultzatzea.

60. artikulua.- Zerbitzu bati dagozkion hondakinak beste bati emateko debekua

Inolaz ere ez da onartuko zerbitzu jakin bati dagozkion hondakinak beste bati ematea.

61. artikulua.- Etxeetako hondakinak biltzeko zerbitzua hartzea

Udalak edo zeregin horretarako ordezkari izendatzen duen erakundeak nahitaez es-kaini behar-koa da etxeetako hondakinak biltzeko zerbitzua. Honako hauek sartzen dira zerbitzu horren barruan:



- Hondakinak utzi edo pilatu diren lekutik bilketa egiteko ibilgailuetaraino eramatea.
- Hondakinak ibilgailu horietan jasotzea.
- Halakorik izanez gero, zaborra biltzeko erabilitako ontziak, hustu ondoren, berriro ere zeuden lekura eramatea.
- Lan horien ondorioz bide publikora eroritako hondakinak bertatik kendu eta zikindutakoa garbitzea.
- Hondakinak zabortegira edo tratamendu-lantegira garraiatu eta han deskargatzea.

62. artikulua.- Nahitaez jaso eta erabili beharra

- 1.Hondakinak biltzeko zerbitzuak osasungarritasunaren aldetik duen interesa dela eta, nahitaezkotzat jotzen da hori erabili eta hartzea; beraz, kale jakin batean eskaintzen den unetik bertatik, alta emango zaie zerbitzuan bertako etxebizitza eta aretoen jabe edo maizter guztiei.
- 2.Erabilitzaileak behartuta daude etxeko hondakinak plastikozko poltsetan uztera.
- 3.Poltsek hermetikoki itxita egon behar dute, ezer isur ez dadin. Behar bezala bildu ez direla-eta hondakinak lurrera erori edo isurtzen badira, hala gertatzeko bide eman duen erabilitzailea izango da sortutako zikinkeraren erantzule.
- 4.Teknologiak eta ekonomiak aukera ematen dutenean, materia biodegradagarri egindako poltsak erabiliko dira plastikozkoen ordez.

63. artikulua.- Hondakinak biltzeko baldintzak

- 1.Ostalaritzako hondakinak botatzeko erretzen ez diren edukiontzia eta ontzi normalizatuak erabili ahal izango dira.
- 2.Merkataritza-aretoetako hondakin solidoak botatzeko, berriz, itzultzeko ez diren ontzi gogorrak -hondakin eta ontzi horiei balioa eman edo birziklatzerik ez ba-dago- edo itzultzeko diren ontzi normalizatuak erabili ahal izango dira.
- 3.Ontzi horiek, beteta, ez dute inolaz ere 25 kg-tik gorako pisua eduki beharko.
- 4.Hondakin asko sortzen dituzten zentro handiek -hala nola merkataritza-zentro, supermerkatu, hotel, egoitza, ikastetxe eta bestek- edukiontzi normalizatuak eduki beharko dituzte, eta beren urbanizazio edo biltegietan gorde, harik eta biltzeko unea iritsi arte; bilketa egin ondoren, berriz, berehalakoan kendu beharko dituzte bide publikotik. Ahal izanez gero, instalazio edo urbanizazio horien barrura sartuko da kamioia.
- 5.Zaborrak botatzeko bestelako edukiontzi edo ontziak erabil daitezela erabakitzen badu udalak, behar diren aldakuntzak egingo ditu ordenantza honetan, bilketa-zerbitzuak ahalik eta baldintzarik hoberenetan gauzatu dezaten.

64. artikulua.- Hondakinak nola bota

- 1.Erabilitzaileak behartuta daude isurketarik ez gertatzeko eta lurrera hondakinik ez erortzeko moduan ematera zaborrak bilketa zerbitzuari. Behar bezala bildu ez di-rela-eta hondakinak lurrera erori edo isurtzen badira, hala gertatzeko bide eman duen erabilitzailea izango da bide publikoan sortutako zikinkeraren erantzule.
- 2.Ez da baimentzen, inolaz ere, hondakinak paketeetan, kutxetan, homologatu ga-beko poltsatan eta antzekoetan ateratzea.
- 3.Debekatuta dago hondakinak bide publikoko paperontzi eta edukiontzietara bota-tzea, baldin eta -horien tamaina dela eta- hondakinak sartzeko zuloa oztopatzen bada hartara.
- 4.Debekatuta dago bide publikoan jarritako edukiontziak kalea garbitzean bildutako hondakinak botatzeko erabiltzea, baita beste edonolako hondakinak botatzeko ere; beste horrenbeste obretako edukiontziei dagokienez.
- 5.Debekatuta dago beren baitan hondakin likidoak edo urtu daitezkeenak dituzten etxeetako nahiz merkataritza-aretoetako zaborrak uztea.
- 6.Debekatuta dago balioa eman dakiekeen hondakinak zaborra uzteko lekuetan uztea, horiek gaika biltzeko sistema izanik: papera eta kartoia, beira, plastikoa eta ontziak, pilak eta abar...
- 7.Merkataritza sektore edo gremioen hondakinetatik balioa eman dakiekeenak gaika jasotzeko atez ateko bilketa egiten den udalerriko eremu edo alderdietan nahitaezkoa izango da hori erabiltzea.
- 8.Nahitaezkoa izango da merkataritza sektorean sortutako hondakin birziklagarri baliore ematea. Gaikako bilketa-sistema erabili ahal izango da horretarako, baldin eta sortutako hondakinen kopuruak, pisuak edo bolumenak hura etxeetako hondakin birziklagarriak botatzeko erabiltzea galarazten ez badute.

9. Hiriguneko bizitoki-auzoetan kokatutako lantegi, biltegi eta industrietan sortutako hondakinak bertako ekoizpen prozesuen ondorio badira edo, balioa ematea al-dera, bestetara bideratzeko modurik badago, norberak kudeatu beharko ditu.

10. Bilketa pneumatikoa ezarria dagoen eremuetan, hauek izango dira hondakinak botatzeko buzoiak erabiltzeko arauak:

- Hondakinak halakoak uzteko buzoietara botatzeko ez da ordutegi jakinik izango.
- Debekatu dago, berariaz, hondakinak nahastuta botatzea buzoietara edo gaika bil daitezkeen hondakinak, bereizi gabe, bertara botatzea, baita hondakinak buzoietatik kanpo uztea ere.
- Hiri hondakin onargarriak, tamaina dela eta, ez badira buzoi-zuloetatik sar-tzen, behar bezala tolestu edo zatituta sartu ahal izango dira.
- Hondakinak uzteko buzoiak ezingo dira baliatu, inolaz ere, beren bolumena edo forma dela eta bilketa pneumatikoaren sistemaren baitako makineriari kalte egin diezaioketen hondakinak botatzeko.

11. Beste edozein motatako hondakinak jasotzeko gaikako bilketa ezartzen denetik aurrera -edo halakoak instalazio finko nahiz mugikorretan jasotzeko modua da-goen unetik-, debekatuta egongo da material horiek bereizi gabe botatzea.

12. Gerora balioa emateko bildu daitezkeen zatiak merkantziak banatzeko zentroetara itzuli eta bertan zentralizatzen bideratutako ekintzak sustatuko ditu udalak.

65. artikulua.- Hondakinak abandonatzeko debekua

1. Debekatuta dago hondakinak noiznahi, nonahi eta nolannahi uztea, hau da, udalak finkatutako ordutegiaren barruan, horretarako dauden lekuetara eta behar den moduan atera beharko dira.

2. Abandonatutako hondakinak jaso eta zikindutakoa garbitzeko obligazioa izango dute aurreko idatz-zatian araututakoa urratzen dutenek, dagozkien erantzukin gorabehera.

66. artikulua.- Udalerriko bilketa-lekuak

1. Vitoria-Gasteizko Udalak horretarako finkatutako lekuetan utzi beharko dituzte hondakinak bilketa-zerbitzuen erabiltzaileek, horiek bertatik jaso ditzaten.

2. Hondakinak utzi eta pilatzeko seinalatuta dauden lekuez gain, besterik ere finkatu ahal izango du udalak, dela betiko, dela aldi baterako. Behar bezala seinalezta-tuko dituzte leku horiek udal zerbitzuek.

3. Bide publikoan egin beharreko obrak direla-eta bilketa-lekuren bat kendu beharra badago, horiek sustatzen dituen arduratu beharko da hura kendu nahiz -obrak bukatzean- berriro jartzeaz.

4. Merkataritza-aretoetako hondakinak biltzeko zerbitzua baliatzen dutenek establezimenduen barruan gorde beharko dituzte horiek, harik eta zerbitzua eskaintzen den arte.

67. artikulua.- Hondakinak manipulatzeko debekua

1. Debekatuta dago hondakinak batetik bestera aldatu edo manipulatzeko.

2. Ontzi normalizaturik ez dagoen lekuetan, bilketaren ardura duten langileek ja-soko dituzte hondakinak, finka edo merkataritza-establezimenduen atetik aurrera.

3. Botatzeko ez diren ontzi normalizatuak dauden lekuetan, bertan utzi beharko dituzte hondakinak auzokoek, eta horiek biltzeko ibilgailuko langileek hustuko dute ontzien edukia kamioira, eta ontziak berriro beren lekuan utziko, hutsik; beraz, ez dagokie langile horiei jabetza publiko nahiz pribatuko inongo finka edo eraikinetan hondakinak manipulatzeko.

68. artikulua.- Hondakinak dituzten ontziak bide publikora atera-tzea

1. Ezingo dira hondakinak dituzten ontziak bide publikora atera -galtzadaren on-doko espaloi-ertzeraz edo adierazten den lekura-, ezta poltsak hondakinak biltzeko edukinontzi edo leku publikoetan pilatu ere, horretarako finkatutako ordu-tegitik kanpo, ezta, inolaz ere, zerbitzurik eskaintzen ez den egunetan ere.

2. Barne-patiorako sarbidea duten eraikinetan eta bilketa-zerbitzuko ibilgailuak sar-tzea ezinezko den kale estuetan, zerbitzuko kamioiak igarotzen diren gertueneko lekura atera beharko dira ontziak, eta behar bezala multzokatu.

3. Era berean, finkatutako ordutegiaren barruan erretiratu beharko dira behin eta berriro erabiltzekoak diren ontziak, hustu ondoren.

69. artikulua.- Hondakinak uztea

1. Periferiako auzoetan, nekazaritza eremuan eta aldirietako eraikinetan, baita uda-lak hala erabakitzen duen urbanizazioetan ere, honela egingo da ohiko hondakin solidoen

bilketa: zuzenean hustu beharko dira zabor-ontziak, edo zabor-poltsak bota, leku zentralizatueta -ahalik eta gertuen- horretarako jartzen diren eduki-ontzietara. Halakoetan, kontu egin beharko dute erabiltzaileek, ontziak edukion-tzietara hustu edo poltsak bertara botatzerakoan, ez dakien deus lurrera eror.

2. Bilketa-zerbitzuak hondakin guztiak deskargatu eta jaso beharko ditu, baita, bir-ziklatu ezin diren hondakinak biltzeko edukiontziak badira, horien kanpoko aldea garbitu eta eroritakoak jaso ere. Gaikako bilketa baldin bada, berriz, une bakoi-tzean ezarrita dagoen zerbitzuaren planifikazioaren arabera jokatu da.

70. artikulua.- Ontzi normalizatuak

1. Etxeetako hondakinak, plastikozko poltsetan sartu ondoren, udalak kasuan kasu adierazten duen motako ontzi normalizatueta utzi beharko dira -zer-nolako hondakinak diren, sektoreak edo bide publikoak zer ezaugarri dituen eta esku-mena duen udal zerbitzuak hondakinak bildu eta garraiatzeko zer planifikazioa egin duen.

2. Udalak ez badu adierazten zein motatako ontzi normalizatuak erabili behar diren hondakinak uzteko, horiek usainik ez botatzeko eta ez sakabanatzeko ezinbes-teko ezaugarriak betetzen dituzten edonolako ontzietan utzi beharko dira -behin eta berriz erabiltzeko ontziak nahiz botatzekoak izan-; gainera, behin eta berriz erabiltzekoak badira, estalkia eduki beharko dute.

3. Bilketa ontzi hermetikoen bitartez egiten den hiriko eremu, sektore eta auzoetan, horiek onik zaintzeko obligazio izango dute erabiltzaileek, baita higiene eta segur-tasun baldintza egokietan edukitzekoa ere; behar den arreta jarri beharko dute horretan, eta beren erruz, beren axolagabekeria edo arinkeriagatik, ontziak hon-datue egiten badira, berak izango dira erantzule.

71. artikulua.- Edukiontzien erabilera

1. Hiri hondakinak biltzeko edukiontzien erabilerari dagokionez, honela jokatu da:

- Udalak erabakiko du nolako edukiontziak erabili beharko diren, eremu bakoi-tzean zenbat izango diren eta non jarriko diren.
- Udalak gune bereziak finkatu ditu edukiontziak kargatu eta deskargatzeko, baita horiek behar bezala zaintzeko beharrezko diren bestelako lanak egiteko ere.
- Hala egitea dagokien zerbitzuek garbitu egingo dituzte edukiontziak aldi behin -zein egoeratan dauden aintzat hartuta-, higiene baldintza egokiei euste aldera.
- Edukiontziak onik zaintzeko obligazio izango dute erabiltzaileek eta, oro har, herritar guztiak, baita horiek higiene eta segurtasun baldintza egokietan edukitzekoa ere, eta beren erruz, beren axolagabekeria edo arinkeriagatik, honda-tzen badira, berak izango dira erantzule. Halaber, obligazio bera izango dute bilketa-lekuetan jarritako barra, pibot, zutoin eta markei dagokienez, halakorik izanez gero.
- Debekatuta dago edukiontziak adierazitako lekutik beste edonora aldatzea, baita arriskua sortu edo bilketa-zerbitzuko langileen lana zaildu lezakeen edo-zein manipulazio egitea ere, horietan.
- Debekatuta daude edukiontziak nahiz bilketa-lekuak honda litzaketan jardue-rak oro.
- Debekatuta dago edozein motatako hondakinak edukiontzitik kanpo uztea.
- Aipatutako betebeharrak eta erantzunbeharrak betetzen ez badira, dagokionari leporatu ahal izango zaizkio sortuta kostuak, dagozkion bestelako erantzukizunak gorabehera.

72. artikulua.- Behin eta berriz erabiltzeko hondakin-ontziak jaso-tzea

1. Etxeetako hondakinak ateratzeko baliatzen diren ontziak, behin eta berriz erabiltzekoak direlarik, garaiz kendu beharko dituzte jabeek bide publikotik, hustu ondoren.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitako gisako ontziak baliatzen direlarik merkataritza-aretoetako hondakinak ateratzeko, bilketa-zerbitzuko langileek itzuliko dituzte beren lekuetara.

3. Ontzi normalizatuak onik zaindu eta garbitzeko beharrezko diren lanak finka okupatzen dutenen kontura izango dira etxebizitza-erakina bada, eta jabeen kontura, berriz, erai-kin publiko edo merkataritza-establezimendu bat bada; nolahi ere, kasuan kasu, pertsona bana izendatu beharko dute lan horiek egiteko.

73. artikulua.- Hiri edo udal hondakinen sortzaileak

1. Zerbitzuaren antolakuntzaren arabera, hiri hondakinak udal ekipamenduetan utzi ditza-tela eskatu ahal izango die udalak horien sortzaileei -tratamendu eta suntsi-pen zerbitzua pertsonen eta ingurumenaren segurtasuna erabat bermatzen dela-rik bideratu ahal izateko moduan.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

2.Hondakin horiek kalteren bat eragiten dutelarik, udalak ez du inolako erantzuki-zunik izango, baldin eta entregatzerakoan ez badira aintzat hartu ordenantza ho-netan nahiz gainerako lege-arauetan emandako jarraibideak.

3.Hondakinak tratatu edo suntsitzeko udal ekipamenduek nahiz udalarekin hitzartu-takoek uko egin ahal izango diote hondakin-materialak hartzeari, baldin eta ez badituzte betetzen -beren ezaugarriengatik edo formagatik- halakoak bertan utzi ahal izateko bete beharrekoak edo dagozkien araudiak.

4.Hondakinak tratatu edo suntsitzeko udal instalazioak baliatu ahal izateko, kasuan kasu finkatzen diren barne arauak bete beharko dira.

74. artikulua.- Saneamendu-sarean eragina duten tratamendu-metodoen debekua

1.Debekatuta dago etxeetan nahiz bestelako edozein eraikinetan hondakin-birringailuak erabiltzea, baldin eta zuzenean saneamendu-sareari lotuta badaude.

2.Debekatuta dago hondakin solidoak zuzenean saneamendu-sarera botatzea.

75. artikulua. (Zerbitzu Jardueretarako Sarbide Libreari eta horietan Aritzeari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legea egokitzeo zenbait ordenantza aldatzeko Ordenantzaren bidez indargabetua)

76. artikulua.- Hondakinen bilketaren ardura duten langileen eta bilketa pneumatikorako instalazioak zaindu, mantendu eta konpontzeko dutenen legitimazioa

1.Hiri hondakinak biltzeko baimendutako langileak baino ez dira arduratuko horiek jasoaz. Hondakin horiek beste edozein pertsona fisiko edo juridikori ematen dizkionak modu solidarioan erantzun beharko du, harekin batera, eragiten duten edozein kalteren aurrean, legezkoekin bestelako erantzukizunak gorabehera.

2.Hiri hondakinak ezingo zaizkie, inolaz ere, kaleak garbitzeko zerbitzuaz ardura-tzen diren langileei eman, horretarako berariazko baimena izan ezean. Halaber, zerbitzu horretako langileek ezingo dituzte beren gain hartu hiri hondakinak, beren lanari dagozkienak salbu.

3.Beren barruan bilketa pneumatikorako instalazioak dituzten eraikinetan, udal zerbitzu teknikoek eta udalak horretarako behar bezala baimendutako langileek bakarrik arduratu ahal izango dute instalazio horiek ikuskatu, onik zaindu eta konpontzeaz.

4.Jabe komunitateetako lehendakari, idazkari nahiz administratzaileek erraztasunak eman beharko dizkiete aurreko atalean adierazitako lanak egin behar dituzten udal zerbitzu teknikoek eta baimendutako langileei. Horretarako, bilketa pneuma-tikorako instalazioetara noiznahi sartzeko, giltzak eskuratu beharko dizkiete, baita horietan gertatzen den edozein matxuraren berri berehalakoan eman ere.

5.Udalak finkatuko du bilketa pneumatikorako barne instalazioak onik zaindu eta konpontzeko lanak direla-eta jabeek ordaindu beharko duten tasa.

77. artikulua.- Atez ateko bilketa-zerbitzua, norberaren kontura

1.Udalerrian hiri hondakin asko sortzen dituztenak nahiz beren esku dauzkatenak salbuetasi egin ahal izango dira bilketa-zerbitzu orokorretik, baldin eta, hondaki-nen egoera, osara edo kopurua dela-eta, izugarri zailtzen bada bilketa; hala-koetan, berek garraiatu beharko dituzte udalak egokitutako lekura edo lekue-tara, eta nahitaezkoa izango da horiek bertan hartzea.

2.Udalaren "atez ateko" bilketa-zerbitzua baliatu ahal izango da horrelakoetan, halakorik baldin badago; bestela, berriz, hondakinak sortzen dituzten edo dauz-katenean obligazioa izango da, edo horiek botatzeko lanak beren kontura egiten dituztenena, beharrezko diren neurri guztiak hartzea bolumena ahalik eta ge-hien murrizteko, baita garraioa eta azken tratamendua ordenantza honen eta indarrean dauden gainerako araudien arabera -segurtasun eta higiene betebe-har guztiak betetzen direlarik- egingo direla ziurtatzea ere.

3.Artikulu honetan adierazitako salbuespenaren ondorioz sortzen diren kalte eta enbarazuen erantzukizuna hiri edo udal hondakinak sortu dituenarena edo ho-riek bere esku dauzkanarena izango da, eta ez beste inorena.

4.Udalak ikuskapena egiteko ahalmena izango du halakoetan, eta edozein alda-keta edo berrikuntza eskatu ahal izango du hondakinak botatzeari dagokionez. Halaber, horien tratamenduari dagokion tasa likidatu ahal izango du.



78. artikulua.- Hiri edo udal hondakin kantitate handiak

- a) Hiri edo udal hondakinak sortzen dituenak edo bere esku dauzkanak ohikoak baino kantitate askoz handiagoak bota beharra badauka noiz edo noiz, eta horrek bilketa-sistemari kalte egin eta gainerako erabiltzaileei eragingo badie, ezin izango ditu ohiko hondakinekin batera atera. Aldiz, bilketa-zerbitzuek jaso ditza-tela eskatu ahal izango du, eta dagokion tasa likidatuko dio udalak horregatik.
- b) Hiri edo udal hondakin ugari sortzen dituzten edo beren esku dauzkatenek (azo-kak, merkataritza-galeriak eta abar), beren ezaugarri bereziak direla eta, udal zerbitzu teknikoan aginduak bete beharko dituzte.
- c) Aurreko puntuan adierazitakoa gorabehera, hiri edo udal hondakin kantitate handiak sortzen duten merkataritza nahiz industria jarduerak ezinbestean bete beharko dute baldintza bat zerbitzu publikoak bildu eta garraiatzekotan: hiri edo udal hondakin horiek ez dute izan beharko zuzenean beren ekoizpenaren ondo-rioz sortuak.
- d) Bilketa bide publikoan jarritako edukiontzia baliatuz egiten den hiriguneko bizi-toki-azuoetan, merkataritza eta industria sektorean sortutako hondakinak horien erabilera egokira mugatuta egongo dira, eta ez da etxeetako zaborrak botatzeko lekua eta edukiera murriztu beharko.

III. ATALA.- ZABORRENTZAKO INSTALAZIO FINKOAK ERABILTZEA

79. artikulua.- Hondakinak biltzeko lokalak edukitzeko obligazioa

1. Egunean 150 kilo hondakin baino gehiago sortzen duten edo beren esku daukate-nek -bilketa udalak egin ala ez- horiek biltzeko lokal bat edukitzeko obligazioa izango dute. Bilketa egiten duten ibilgailuentzako zuzeneko sarbidea eduki beharko dute lokal horiek, eta trinkogailuz hornituta egon beharko dute.
2. Lokal horien kokalekua aukeratzeko orduan, kontuan hartu beharko da, beti ere, bilketa egin behar duten ibilgailuen igarobidearekiko hurbiltasuna, baita bilketa udal zerbitzuak egiteko aukera ere.

80. artikulua.- Zabor-gelak, eraikinetan

1. Zabor-gela duten eraikinetan (etxebizitzak, industriak, dendak, osasun-zentroak eta bestelako establezimenduak), egunean sortutako zaborrak eta ez beste biltzeko erabili beharko dira horiek.
2. Zabor-gela horiek komunitate osoak erabil ditzala bultzatuko du udalak, hartara hiri edo udal hondakinak uzteko aukera erraztearen mugitzeko zailtasunak dituztenei nahiz beren lan-ordutegiak direla-eta udalak jarritako bilketa-ordutegiak betetzerik ez daukate-nei, eta, oro har, hala erabakitzen duten komunitate guztietatik; horretarako, gurpilez eta estalkiz hornitutako edukiontzia emango dizkiete -behin bakarrik-, kolore desberdinetakoak, bakoitzean hondakin mota bana bota-tzeko.
3. Komunitateak arduratu beharko du edukiontzia bilketa lekuraino eramateaz, be-rririo zabor-gelara sartzeaz nahiz hondakin birziklagarriak halakoak biltzeko edukiontzietara botatzeaz; hortaz, pertsona bat izendatu beharko du, kasuan kasu, zeregin horiek egin ditzan.

81. artikulua.- Hondakinak instalazio horietan pilatzea

1. Hondakinak instalazio horietan pilatzeko, edukiontzi iragazgaitzak baliatu beharko dira, ondo-ondo itxiak.
2. Hondakinak pilatzeko lekua eta horretarako erabiltzen diren edukiontzia egoera onean zaindu beharko dira, higienari, osasungarritasunari eta garbitasunari dagokienez.
3. Edukiontzi itxietan entregatu beharko dira hondakinak kasu horietan -bilketa-kamioietara egokitutako ezaugarriak izan beharko dituzte-. Lokala, edukiontzia nahiz trinkogailuak establezimenduaren arduradunaren kargu egongo dira, era-bat.

82. artikulua.- Hondakinentzako hustubideak

1. Etxebizitza-eraikinetan hondakin-hustubide kolektiboak jartzeko baimena ematen delarik, Vitoria-Gasteizko Hiri Antolakuntzarako Plangintza Orokorrean finkatu-tako arauak bete beharko dira.
2. Debekatuta dago hondakin-hustubide kolektiboetatik babestu gabeko hondakin-materialak botatzea, baita hondakin likidoak ere. Edonola ere, hustubideen ego-erak fisikoa nahiz higienikoa zaintzen delarik bota beharko dira hondakinak.
3. Hondakinen bilketa pneumatikorako sistema kolektiboak eraiki, erabili eta onik zaintzeari dagokionez, araudi osagarriak egingo dira.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

IV. ATALA.- HIRI HONDAKINAK BILTZEKO ZERBITZUEN ERREGIMENA ETA ORDUTEGIA

83. artikulua.- Bilketa-ordutegia

1. Etxeetako hondakinen bilketa egunero egingo da hirian -eta gutxienez astean hiru egunez nekazaritza eremuan-, larunbat gau edo igande goizaldeetan salbu; hortaz, debekatuta egongo da horiek larunbatetan ateratzea. Bi jaiegun segidan egokitzen badira, bi egun horietako batean egingo da bilketa.
2. Etxeetako hondakinak biltzeko zerbitzuak gauz egingo du lan. Maiatzetik urrira bitartean debekatuta dago hondakinak 22:00ak baino lehenago ateratzea, eta gainerako hiletan, berriz, 21:00ak baino lehenago egitea. Halaber, debekatuta dago 23:00etatik aurrera ateratzea, urte osoan.
3. Merkataritza-aretoetako hondakinen bilketa egunero egingo da, igande eta jaiegunetan izan ezik; bilketa bereizia ezartzen bada, berriz, udalak erabakiko du or-dutegia.
4. Bilketa-ordutegiaren barruan utzi beharko dira bide publikoan merkataritza-aretoetako hondakinak, ordenantza honetan xedatutakoa eta udal agintariek emandako jarraibideak aintzat harturik.
5. Hondakinak halakoak uzteko buzoietara botatzeko ez da ordutegi jakinik izango.
6. Ahal den neurrian, merkataritza-aretoak zabalik dauden orduetan bilduko dira horietako hondakinak -ordenantza honetan xedatutakoa bete beharko da beti ere.
7. Hondakinentzako edukiontzi eta ontzi normalizatuak 8:00ak arte utzi ahal izango dira bide publikoan, hustu ondoren. Horiek bide publikotik kentzera behartuta daude ardura-dunak.

84. artikulua.- Bilketa-zerbitzuaren zer-nolakoak

1. Egutegi bat argitaratuko da urtero, eta bertan adieraziko bilketa egunak eta or-dutegia.
2. Hondakinak biltzeko zerbitzuen maiztasunak aldatzerik izango du udalak, udale-rriares interesetarako mesedegarri irizten badio.
3. Edozein unetan egin ahal izango ditu udalak komenigarritzat jotzen dituen alda-kuntzak bilketa zerbitzuen programan, interes publikoko arrazoiak direla medio.
4. Garaiz emango dute udal zerbitzuek zerbitzuaren ordutegian, zer-nolakoetan na-hiz maiztasunean egiten den edozein aldakuntzaren berri, salbu eta udalak la-rrialdi egoeretan emandako xedapenak direnean.
5. Larrialdi egoeraren bat nahiz munta handiko beste arrazoiren bat dela-eta bilketa zerbitzu normala eskaintzea ezinezkoa denean, eta udalak hala jakinarazten due-larik, erabiltzaileek ez dituzte hondakinak kalera atera beharko, harik eta zerbi-tzua normaldu edo udalak bestelako jarraibideak eman arte. Hondakinak kalean utzi ondoren iragartzen bada hori, zeinek bere ontzia berreskuratu beharko du, eta behar bezala gorde, eta ez du atera beharko harik eta zerbitzua normaldu edo udalak bestelako jarraibideak eman arte.
6. Berdin egin beharko da edukiontzia beteta badago.
7. Inolaz ere ez da sortuko tasak murrizteko eskubiderik, ezta ezer itzultzeko esku-biderik ere, artikulua honetan adierazitako kasuetan kalteren bat eraginez gero.

V. KAPITULUA.- HONDAKIN-MATERIALAK APROBETXATZEA ETA GAIKAKO BILKETA

I. ATALA.- BALDINTZA OROKORRAK ETA APLIKAZIO-ESPARRUA

85. artikulua.- Gaikako bilketa

1. Ordenantza honi dagozkionetarako, hiri edo udal hondakinen osagai bat edo ge-hiago bereizita bota eta biltzea joko da gaikako bilketatzat.
2. Zuzenean udal zerbitzuek nahiz bestek -baimendutako kudeatzaileek, hondakinak sortzen dituztenekin hala hitzartua dutelarik- egin ahal izango dituzte gai-kako bilketak.
3. Etxeetako hondakinak eta horien parekotzat jo daitezkeenak biltzeko sistema pneumatikoa dagoen eremuetan edukiontziak jarri ahal izango dira beira jaso-tzeko, baita papera eta kartoia jasotzeko ere.
4. Udal zerbitzuek gaikako bilketa egiteko programa zehatzak ezartzen baldin ba-dira, udalak emandako jarraibideei jarraiki bete beharko dituzte programa horiek erabiltzaileek.
5. Bestela egiteak, zarata dela eta, herritarrei enbarazu egitea badakar berekin -esate baterako, beira edukiontziak hustean-, bilketa goizeko 8:00etatik aurrera egiten saiatu beharko da.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

86. artikulua.- Herritarrei informazioa ematea

Zerbitzu horiek baliatzeko baldintzei eta dauden modalitateei buruzko informazioa eman-
go diete udal zerbitzuek herritarrei.

II. ATALA.- GAIKAKO BILKETA EGITEKO ZERBITZUA

87. artikulua.- Atal desberdinak, gaikako bilketan

1. Legeek ezarritako obligazioak betetze aldera, hondakinak berreskuratu eta birziklat-
zeko zikloa osatuko du udalak, dela bere kasa, dela besterekin -erakunde, elkarte, fe-
derazio nahiz beste- batera; honako hauek gaika biltzeko zerbitzua ezarriko du horre-
tarako :
 2. Altzari, tresna eta traste zaharrak
 3. Beira
 4. Papera eta kartoia
 5. Arropa, zapiak eta ehunak orokorrean,
 6. Pilak eta etxeetako bestelako produktu toxiko edo arriskutsuak
 7. Plastikoak
 8. Gai organikoaren hondarrak
 9. Metalak
 10. Ontziak
 11. Erabilitako olio begetala
 12. Berreskura daitezkeen eta birzikla daitekeen beste edozein elementu edo lehengai.
2. Beste edozein hondakin, baldin eta horiei balioa emateko, hau da, berriro erabili, birzi-
klatu edo berreskuratzeko teknologiarik badago, dela ekimen publikoaren bi-dez, dela
ekimen pribatuen bidez.

88. artikulua.- Ontziak

1. Ordenantza honi dagozkionetarako, hauxe joko da ontzitzat: edonolako materia-lez
egindako produktua, fabrikazio, banaketa eta kontsumo katearen edozein fa-setan mer-
kantiak -lehengaiak nahiz bukatutako gaiak- gordetzeko, manipula-tzeko, banatzeko eta
aurkezteko baliatzen dena. Orobat joko dira ontzitzat hel-buru berarekin erabiltzen diren
botatzeko gaiak oro. Hauek bakarrik sartuko dira kontzeptu horren barruan: saltzeko
ontziak edo lehen mailakoak, ontzi kolekti-boak edo bigarren mailakoak eta garraio ont-
ziak edo hirugarren mailakoak.
2. Ontzi kontzeptuaren barruan sartuko dira kontsumitzaile edo azken erabiltzaileak mer-
kantzia garraiatzeko dendetan eman nahiz erositako poltsak, behin bakarrik erabiltze-
koak, baita ontzien helburu berarekin erabiltzen diren botatzeko beste-lako gaiak ere,
hala nola, erabili eta botatzeko erretiluak, platerak, edalontziak, mahai-tresnak eta beste-
lakoak, bereziki ostalaritzan eta jatetxeetan produktua emateko eta horren zuzeneko
kontsumoa edo erabilera ahalbidetu edo errazteko baliatzen direnak.
3. Industria edo merkataritza ontzitzat joko dira, aldiz, industrian, merkataritza-aretoetan,
zerbitzuetan eta nekazaritza nahiz abeltzaintza ustiapenetan bakarrik erabili eta kontsu-
mitzekoak direnak eta, hortaz, etxe partikularretan erabili eta kontsumitzeko ez direnak.

89. artikulua.- Ontzitzat joko ez direnak

Ondorengo produktuak ez dira ontzitzat joko:

- Etxeetako hiri hondakinak bota eta biltzeko erabilitako poltsak. Ez dira kontzeptu
horretan sartzen eta, hortaz, ontzitzat joko dira kontsumitzaile edo azken erabil-
tzaileak merkantzia garraiatzeko dendetan emandako poltsak, behin bakarrik erabilt-
zekoak, nahiz eta gerora hiri hondakinak bota eta biltzeko erabili.
- Erosketa-saskiak.
- Bilgarriak, hau da, produktua biltzeko erabiltzen diren materialak, produktua merka-
turatutakoan harekin ez zetozenak, baizik eta hura azken kontsumitzaileari saltzera-
koan eranstean zaizkionak.
-
- Ez dira erosketa-saski eta bilgarri kontzeptuetan sartuko eta, hortaz, ontzitzat joko
dira kontsumitzaile edo azken erabiltzaileak merkantzia garraiatzeko dende-tan
emandako poltsak, behin bakarrik erabiltzekoak.
-
- Gutun-azalak.
- Karterak, paper-zorroak eta agiriak eramateko antzeko tresnak.
- Maletak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

- Pizgailuak.
- Infusio poltsak, beren baitako produktutik bereizi ezinak.
- Luma edo boligrafoentzako ordezeko piezak.
- Diru-zorro eta billete-zorroak.
- Xiringak, plasma-poltsak eta beren helburua dela-eta osasun-produktutzat jo daitezkeen bestelako produktuak.
- Odol, gorozki edo gernu laginak hartzeko flasko eta poltsak, eta analisi-lanetarako erabiltzen diren antzeko ontziak.
- Botika-ontziekin batera datozen erabilera eta jarraibide orriak.
- Zinta magnetofoniko, bideo-kasete eta informatika-disketak.
- Ukipen-lente edo betaurrekoen kutxak.

90. artikulua.- Hondakinak bereizirik uztea

- 1.Zenbait hondakin -papera eta kartoia, beira, plastikoak...- gaika jasotzeko bil-keta-sistema ezarria badago, debekatuta egongo da material horiek bereizi gabe botatzea.
- 2.Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak bereizirik biltzeko sistemak ezarrita ba-daude, debekatuta egongo da halakoak etxeko gainerako zaborrekin batera uztea.

91. artikulua.- Edukiontzia

- 1.Gaikako bilketa egiteko jartzen diren edukiontzia zerbitzu horretarako eta ez bestetarako izango dira. Debekatuta dago edukiontzi horietan kasu bakoitzean berariaz adierazitakoez beste hondakinik botatzea.
- 2.Gaiakako bilketarako zerbitzuak baliatzeko baldintzei eta dauden modalitateei bu-ruzko informazioa emango diete udal zerbitzuek herritarrei.
- 3.Edozein motako hondakinak eta hiri hondakin solidoak bildu eta aprobetxatzea debekatuta dago, baita bide publikoan bilketa zerbitzuek jasotzearen zain dauden edozein hondakin gai hautatu, sailkatu eta bakantzea ere, baimendutako kudeatzaileek burututakoa izan ezik.
- 4.Segurtasun, osasungarritasun eta higiene arazoak direla eta, debekatuta dago edukiontzietan utzitako hondakinak bertatik ateratzea.
- 5.Osasungarritasun, higiene eta garbitasun arazoak direla eta, debekatuta dago materialak edukiontzietatik kanpo edo horien ondoan uztea, edukiontzian bota-tzen den motako hondakina izanda ere.
- 6.Ahal delarik, tolestu edo zatitu egin beharko dira hondakinak, baldin eta bestela, beren ezaugarriak direla eta, gaikako bilketarako sistemaren erabilera egokia kal-tetuko badute.
- 7.Hondakin gehien sortzen diren leketan berariazko edukiontzia jarriz egingo da gaikako bilketa; nolahi ere, aldi oro ematen diren segurtasun eta ikuspen neu-rriak errespetatu, trafikoari dagokionez. Edukiontzi horiek interes orokorra bila-tuz kokatzeko ahalmena beretzat gordeko du udalak.
- 8.Bide publikoan egin beharreko obrak edo beste dela-eta edukiontzia eta horien lekua mugatzen duten pibotak edo bolardoak jarrita dauden lekua okupatu behar-rra egokitzen bada, obrak egiten ari diren enpresek berek arduratu beharko dute horiek beren lekutik aldatzeaz; horretarako, jakinaren gainean jarri beharko dute udala lehenik, eta hark erabakiko du edukiontzien behin-behineko kokalekua. Obrak bukatu bitartean horiek kokaleku berrian jartzeko obligazioa izango dute, eta ondoren lehengo egoerara aldatzekoa. Altzari horietan kalteren bat eragiten bada, obra-lizentziaren edo dena delako baimenaren titularrak izango dira eran-tzule.

92. artikulua.- Ekimen pribatuak

- 1.Hondakinei balioa emateko ekimen pribatu nahiz publikoak bultzatu eta sustatu ahal izango ditu udalak, baldin eta udal zerbitzuen iritziz udalerrian emaitza onak lortzeko aukera eskaintzen badute.
- 2.Hondakinen gaikako bilketaren inguruko kanpainak sustatu edo diruz lagundu ahal izango ditu udalak, horretarako duen ahalmena baliatuz, eta interesatuei en-tzun ondoren.
- 3.Gaikako bilketak aintzat hartzen dituzten hondakinen kudeaketarako sistemak sustatuko ditu udalak ahal duen neurrian, helburu hauek lortzeko asmoz, hain zuzen ere:
 - Zabortegia baliatu ahal izango den denbora luzatu eta tratamendu lantegi eta araztegien funtzionamendua erraztea.
 - Lehengaiak aurrezteak.
 - Ura eta energia aurrezteak.



VI. KAPITULUA.- HIRI HONDAKIN BEREZIEN BILKETA

I. I. ATALA.-XEDAPEN OROKORRAK

93. artikulua.- Hiri hondakin bereziak

Ordenantza honi dagozkionetarako, honako hauek joko dira hiri hondakin berezizat:

- Bide publikoak, berdeguneak eta aisialdirako lekuak garbitzetik sortutako hondakinak.
- Hildako etxeko animaliak.
- Altzari eta tresnak.
- Erabiltzeari utzitako ibilgailuak .

Zerrenda hori ez da erabatekoa, hau da, hiri hondakin berezizat jotzen diren hondakin gehiago ere sartu ahal izango dira bertan.

94. artikulua.- Aldez aurreko eskaria

1.Hondakin bereziak biltzeko programatutako zerbitzua, halakorik badago, interesdunak eskatu beharko du aldez aurretik, eskatzean hondakin mota eta bolumena adierazi beharko duela, eta egoki bada, Udalak bilketa egingo den eguna eta gutxi-gorabeherako ordua adieraziko du.

2.Hiri hondakin berezi horietakoren bat biltzeko udal zerbitzurik ez badago, sortzen dituenak berak arduratu beharko du horiek kudeatzeaz, eta une bakoitzean indarrean dauden arauak bete beharko ditu.

95. artikulua.- Tasa

Beti ere, ibilgailu eta ontzi egokietan garraiatu beharko dira hondakin horiek, zernolakoak diren aintzat hartuta. Zerbitzua eman ondoren, dagokion tasa likidatuko da, halakorik baldin badago.

96. artikulua.- Premiazko egoerak

Hondakinak jasotzeko premia handia izaki ezinezko bada eskaria tramitatu arte itxarotea, dagokien zerbitzu teknikoei egin ahal izango zaie eskaria, zein idatziz jasota gertatu baita bertan; horien arduradunak aztertuko du premia zenbatekoa den, eta, egoki baderitzo, hondakinak biltzeko agindua emango dio udal zerbitzuari edo lan horiek bere gain hartuak dituenari; aldi berean, udalari jakinaraziko dio, zerbitzuari dagokion tasaren likidazioa egin dezan.

II. ATALA.- GALDUTAKO EDO IRAUNGITAKO JANARI ETA PRODUKTUAK NAHIZ HILDAKO ANIMALIAK JASOTZEA

97. artikulua.- Alferrik galdu edo iraungitako janari eta produk-tuak

1.Alferrik galdu edo iraungitako janari edo produktu kantitate handiak bota behar-reen egokitzen direlarik merkataritza-establezimendu txikien jabeak, hondakin horien berri udalari emateko obligazioa izango dute. Halaber, behar den informa-zio guztia eman beharko diote, hondakinak egoki suntsi daitezen, eta beharrezko-tzat jotzen duten zerbitzua eskatu beharko diote horretarako.

2.Botika iraungiak etxeetako zaborrekin batera bota ez daitezen, udalak finkatua du horiek biltzeko modua; farmazietan, puntu berde mugikorrean eta garbigu-neetan jasotzen dira, hain zuzen ere.

98. artikulua.- Hildako animaliak

1.Hildako animaliak bota beharrean egokitzen diren pertsona edo erakundeek es-kumena duen udal zerbitzuaren bitartez egin ahal izango dute; hau da, zerbitzu hori arduratuko da hildako animalia jaso, garraiatu eta desagerrarazteaz, etxeko-ekin batera edo gatibu bizi zen animalia bakar bat bada eta zerbitzua behin baka-rrik edo behin edo behin eskatzen bada.

2.Artikulu honetako 1. puntuan xedatutakoa ez da aplikatuko abeltzaintza edo in-dustri ustiapenen kasuan, ezta kirol edo aisialdi jardueren kasuan ere. Horrelako-etan, albaitari-kontrola egin ondoren, halakoak hartzeko baimendutako zentroe-tara garraiatu beharko dira hildako animaliak, jabearen kontura, osasunari nahiz ingurumenari dagokienez neurri egokiak hartzen direlarik, eta dena delako tasa likidatuko da gerora.

3.Hildako animalia-aren bat aurkitzen dutenek udalari jakinarazi beharko diote, hark berta-tik jaso dezan, beharrezko diren higiene neurriak aintzat harturik, beti ere.

4.Azienda saneatzeko kanpainen, epizootien edo antzekoen ondorioz animalia ugari lurpe-ratu beharra egokitzen bada, artikulu honetako 2. puntuan adierazitako pro-zesuari ja-



rraiki jokatu beharko da, osasuna nahiz ingurumena babeste aldera ahalik eta neurririk zorrotzenak hartzen direlarik eta, horrez gain, eskumena du-ten zerbitzu teknikoek kasuan kasu xedatzen dutenari men eginez.

99. artikulua.- Zerbitzua eskaintzea

Hildako animaliak botatzeko beharra izanez gero, udalak halakoetarako ezarritako zerbitzuen bitartez egin beharko da, horiek emandako jarraibideekin bat etorriz. Nolanahi ere, horrek ez du galaraziko alde aurretik baimena jaso duen beste edozein jardueramodu baliatzea, dela albaitaritzako profesionalen bitartez, dela lehen sektorean diharduten elkarte edo sindikatuen bitartez, dela besteren bitartez.

100. artikulua.- Bestelako obligazioak, hildako animaliak direla eta

1. Hildako animaliak desagerrarazteak ez ditu libratzen jabeak horien bajaren berri emateko obligaziotik; orobat jakinarazi beharko dute, indarrean dagoen araudiak hala agintzen badu, zer dela-eta hil diren animaliak.
2. Jabeak edo, horren orde, interesa duen beste edonork, jakinaren gainean jarriko beharko du udala, zeinek animalia edo hondakin motari, dagoen lekuari eta zerbitzua eskatu duen pertsonari buruzko datuak hartuko baititu, eta egokitzat jotzen dituen neurri bereziak hartuko hilotza edo hondakina aztertu eta suntsitzeko.
3. Enpresa pribatu batekin kontratatu ahal izango du udalak bilketa hori eta dago-kion tramitazioa.

101. artikulua.- Debekua

1. Debekatuta dago edozein espezieko animalien hilotzak etxeko zaborrekin batera botatzea nahiz edozein lur sailetan abandonatzea, baita ibai, aintzira, hustubide edo estoldetara botatzea ere, eta, era berean, jabetza publikoko lur sailetan lur-peratu edo ehorztea.
2. Arau hori ez betetzeagatik jartzen den zigorra osasunaren alorreko araudian aurreikusitako erantzukinez apartekoa izango da.

III. ATALA.- ALTZARI ETA TRESNAK JASOTZEA

102. artikulua.- Altzari eta tresnak jasotzea

1. Altzariak edo tresnak (koltxoak, etxetresna elektrikoak, somierrak eta antze-koak) bota nahi dituztenek udal zerbitzuetara nahiz udalak halakoak erretiratzeko baimendutako edozein enpresatara jo ahal izango dute, eta kasuan kasu ados-tuko da, alde aurretik, nola jasoko diren.
2. Altzari eta tresnen parekotzat jo daitezkeen bolumen handiko hondakinak, hirigunean kokatutako hirugarren sektoreko establezimenduetako merkataritza jardueratik sortuak direlarik, sortzen dituztenek berek kudeatu beharko dituzte, kudea-keta sistema integraturik ez baldin badago. Udalak, bitartean, akordio edo hitzar-menak sinatu ahal izango ditu eragindako sektoreekin, hondakin horiek bildu nahiz, ahal izanez gero, berriro erabili edo berreskuratze aldera.

103. artikulua.- Debekua

Debekatuta dago horrelako hondakinak bide publikoan uztea, baita orube edo lur sail publiko nahiz pribatuetan ere.

IV. ATALA.- ERABILTZEARI UTZITAKO IBILGAILUAK JASOTZEA

104. artikulua.- Erabiltzeari utzitako ibilgailuak (EUI)

1. Debekatuta dago erabiltzeari utzitako ibilgailuak bide publikoan nahiz erabilera orokorreko eremuetan abandonatzea -horiek onik eta txukun zaintzeko esku-mena udalak duen bitartez.
2. Honako hauetan joko dira ibilgailuak abandonatutzat:
 - Eskumena duen agintariak ibilgailua bide publikotik kendu eta biltegian utzi zuenetik bi hilabete igarotzen direnean.
 - Ibilgailuak leku berean aparkatuta hilabetetik gora egiten duenean eta leku batetik bestera berez mugitzea ezinezko egiten duten kalteak dituztenean edo matrikula-xaflak falta dituztenean.
3. Ez dira erabiltzeari utzitakotzat joko egoera horretan, lekutik mugitu gabe, epai-learen aginduz dauden ibilgailuak, udala jakinaren gainean jarri bada. Hiriko higi-enea onik zaintzeko beharrezko diren neurriak har daitezela galdatu ahal izango du udalak.



105. artikulua.- Abandonatutako ibilgailuaren jabeari jakinaraztea

1. Aurreko artikuluan adierazitako abandonatze kasuetan, beren ibilgailuak zein egoeratan dauden jakinaraziko zaiei jabeei, eta gehienez 15 egun naturaleko epean erretira ditzatela galdutako, salbu eta arrisku-egoera, osasungarritasunik eza edo ordena publikoa dela-eta horiek berehala erretiratu beharra baldin ba-dago.
2. Ibilgailua kaletik kendu eta biltegian gordetzen delarik, jakinaren gainean jarriko du udalak titular edo jabea.
3. Ibilgailua udalaren esku uzten duen -hala bada, udala egingo da horren jabe- edo hura suntsitzearen ardura bere gain hartuko duen adieraz dezala eskatuko zaio jabeari jakinarazpenean, eta orobat ohartaraziko ezen, 15 eguneko epean erantzuten ez badu, lehenengo aukeratu duela ulertuko dela. Jabea nor den ja-kiterik ez badago, arau orokorreki jarraiki gauzatuko da jakinarazpena.

106. artikulua.- Abandonatutako ibilgailuak jasotzeko zerbitzua

1. Aurreko artikuluan adierazitako abandonatze kasuetan, eta behar diren jakina-razpenak egin ondoren, biltegian gordeko da ibilgailua, gehienez ere bi hilabetez; denbora hori igarotakoan, egoki deritzona egingo du udalak harekin. Azkeneko hori bera egingo du arrisku-egoera, osasungarritasunik eza edo ordena publikoa dela-eta erretiratutakoekin.
2. Erabiltzeari utzitako ibilgailuen jabe egingo da udala ondorengo kasuetan:
 - Jabeak ibilgailua hondakintzat jo, jabetzari uko egin eta udalaren esku uzten duenean.
 - Udal zerbitzuen iritziz ibilgailuaren egoerak hura abandonatuta dagoela uste izateko bide ematen duenean, ordenantza honetan emandako epeak eta xedapenak bete ondoren.
3. Halakoetan, jabearen edo ibilgailua bere gain daukanaren kontura izango dira hura erretiratu eta biltegian gordetzearen ondorio diren gastuak, baita udalak ho-rren inguruan egiten duen beste edozein jardueretatik sortzen direnak ere, beste-lako zigorrak gorabehera.

V. ATALA.- LOREZAINZA-HONDARRAK JASOTZEA

107. artikulua.- Lorezaintza-hondarrak jasotzea

1. Lorezaintza-hondarrak beren bitarteko propioak baliatuz bildu eta suntsitzeko obligazioa dute lorategi eremuen jabe edo arduradunek; hain zuzen ere, puntu berdeetara edo halako hondakinen tratamendurako lantegietara eramane beharko dituzte horretarako.
2. Lorategi eremu publikoen kasuan, lorezaintza-hondarren diametroak edo lodita-sunak horiek erregaitarako edo konposta egiteko baliatzeko aukera ematen badu, ez dira hondakintzat joko, eta instalazio egokietan erabiltzeko berreskuratu beharko dira.

VII. KAPITULUA.- OBRETAKO LUR ETA HONDAKINAK BILDU, GARRAIATU ETA BOTATZEA

I. ATALA.- BALDINTZA OROKORRAK ETA APLIKAZIO-ESPARRUA

108. artikulua.- Xedea

1. Honako hauek arautzen dira kapitulu honetan:
 - Obretako lur eta hondakin gisa sailkatutako hondakin solidoak kanporatu, kargatu, garraiatu, pilatu eta botatzea.
 - Obretako edukiontziak bide publikoan jartzea, haietatik sortutako lur eta hondakinak bertan bildu eta garraiatzeko.
2. Kapitulu honetan xedatutakoak ez dira aplikatuko obra berrietako lanetarako saldu edo hornitzen den lurra edo horren parekotzat jo daitezkeen materialak di-renean. Material horiek kargatu, deskargatu nahiz garraiatzean sortzen den zikin-keria dela eta, bai aplikatuko dira, aitzitik, ordenantzako bestelako arauak, hau da, bide publikoa ez zikintzeko edo zikindiz gero garbitzeko neurrien ingurukoak.

109. artikulua.- Obretako lur eta hondakinak

- Ordenantza honi dagozkionetarako, hondakin-material hauek joko dira obretako lur eta hondakintzat:
- Hondeatze lanetatik ateratako lurra, harriak eta antzeko materialak.
 - Eraikitze, botatze eta eraiste lanetatik sortutako hondakinak eta, oro har, obra handi nahiz txikietako soberakin guztiak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

- Aurrekoen parekotzat jo daitekeen edozein hondakin-material, eta udalak egoera berezietan hala erabakitzen duen guztiak.

110. artikulua.- Helburuak

Udalak obretako lur eta hondakinen alorrean izango duen esku-hartzearen helburua dena delako jardueren ondorioz egoera hauek gertatzea galaraztea izango da:

- Material horiek kontrolik gabe edo behar ez bezala botatzea.
- Baimendu gabeko lekuetan botatzea.
- Jabego publikoko lur sail edo ondasunak behar ez bezala okupatzea.
- Udalerriko zoladurak eta gainerako egiturazko elementuak hondatzea.
- Bide publikoa eta udalerriko gainerako lekuak zikintzea.

111. artikulua.- Salbuespenak

Kapitulu honen xedetik salbuetsita egongo dira saltzeko diren lur eta materialak eta obra-hondakinak birziklatzeko prozesuan berreskuratutako materialak. Baita eraikitze eta eraiste lanetatik -errepideak egiteko lanak barne- sortutako hondakinak ere, amiantoa baldin badute.

112. artikulua.- Udalaren ebazpenak

1. Obretako lur eta hondakinak botatzen direnean, espazio publiko nahiz pribatuak berreskuratze bide emateko moduan egin dadila bultzatuko du udalak, eta, ho-rrenbestez, halakoak botatzeko lekuak eta moduak zehaztuko.
2. Kapitulu honi dagokionez, proiektua idazten duenak nahitaez sartu beharko du Ingurumen Kudeaketarako Programa bat -obrak egiterakoan baliatuko dena- or-denantza honen 12. artikuluan aipatu den obra-baimena eskatzeko eranskinean. Obran sortuko diren hondakin guztien alde aurreko bereizketa edo sailkapena zehaztu beharko da bertan, eta orobat adierazi nora bideratuko diren azkenik, birziklatze aldera. Nahitaez bete beharko dute programa hori obra zuzendaritzak nahiz eraikitze prozesuan esku hartzen duten enpresa, erakunde eta eragileek.
3. Udalak berak idatzi eta udal instalazioetan gauzatzen dituen proiektuetan eta abiarazten dituen urbanizazio eta obretan ere sartu beharko da obrak egiterakoan baliatu beharreko Ingurumen Kudeaketarako Programa hori.
4. Obretan eraikuntza iraunkorraren eta gaikako eraispnaren alorreko irizpideak aplikatzeko arau eta programak ezarri ahal izango ditu udalak, eta eraikuntza-hondakinak tratatzeko lantegien lana erraztu. Guztia ere, agregakin birziklatuak lortzea nahiz espazio publiko edo pribatuak berreskuratzea helburutzat harturik.

113. artikulua.- Debekuak

1. Obretako lur eta hondakinak sortu eta botatzeari dagokienez, debekatuta dago:
 - Horretarako berariaz baimena eman ez bada, hondakinak lur publikoetan botatzea.
 - Hondakinak jabetza partikularreko lurretan botatzea, horretarako udal bai-mena eduki gabe.
 - Obretako lur eta hondakinak jabetza publiko nahiz pribatuko lur sailen mor-fologia aldatzeko erabiltzea -betelanak edo bestelako moldatze-lanak egi-teko-, administrazioaren arauzko baimena eduki gabe.
2. Obretako lur eta hondakinentzako berariazko biltegietan ezingo da utzi usteldu edo deskonposatu daitekeen gairik, ezta substantzia toxiko edo arriskutsuak di-tuenik ere.
3. Erabat debekatuta dago edonongo obra-hondakinak etxeetako hondakinak bota-tzeko ontzi normalizatuetan uztea.
4. Debekatuta dago eraikinak eraiki nahiz eraberritzeko lanetatik edo horien barruan egin-dako lanetatik sortutako edonolako obra-hondakin edo zaborrak 3 ordu baino gehiagoz bide publikoan uztea.
5. Era berean, debekatuta dago eraikuntzako edozein material 3 orduetik gora eduki-tzea bide publikoan pilatuta, obra babesten duen hesitik kanpo.
6. Debekatuta dago ibaibide, erreka, aintzira eta abelbideetan edonolako obra-hondakinak utzi edo pilatzea.

II. ATALA.- OBRETAKE EDUKIONTZIAK ERABILTZEA

114. artikulua.- Obretako edukiontzia

1. Kapitulu honi dagozkionetarako, hauexek joko dira obretako edukiontzizat: me-talez edo erretzen ez den bestelako material gogorren batez egindako ontziak, nazioartean normalizatutako mota eta neurrietakoak, garraio ibilgailu berezietan mekanikoki kargatu



eta horietatik deskargatzeko euskarri berezietz hornituak, obra publiko edo eraikinak eraiki nahiz eraisterakoan sortutako edozein motatako materialak pilatu edo lurra eta obra-hondakinak jasotzeko balio dutenak. Metro kubiko bat hondakin baino gehiago sortzen den obretan nahitaez erabili behar dira.

2. Ez dira edukiontzi mota horretan sartuko garbiketa zerbitzuarenak, etxeetako za-borra biltzekoak eta beira, papera, egurra, ontziak edo berreskuratu beharreko bestelako materialak biltzekoak.

115. artikulua.- Baimena eskatu beharra

1. Obretako edukiontziak jarri ahal izateko udal baimena eskuratu beharko da.
2. Obretako edukiontziak obra-eremu itxien barruan jartzen direlarik ez da baimenik behar; hala ere, ordenantza honetako xedapenak bete beharko dira gainera-koan.
3. Obretako edukiontziak bide publikoan jartzeagatik ordaindu beharreko tasak da-gokien ordenantza fiskalean arautuko dira.
4. Baimenaren titularrek bakarrik erabili ahal izango dituzte obretako edukiontziak.
5. Edukiontzia bide publikotik kentzean, garbi eta txukun utzi beharko du obra baimenaren titularrak hura jarrita egon den lekua.

116. artikulua.- Edukiontzi-motak eta horiek nola jarri

1. Bi motakoak izan ahalko dira edukiontziak:
 - Normalak: luzetarako sekzio trapezoidala eta luzetarako parametro bertikalak. Hauek izango dituzte gehienezko neurriak: (5) bost metro luze goiko aldean, (2) bi metro zabal eta metro eta erdi (1,5) garai.
 - Bereziak: parametro bertikalak, eta gehienezko neurri hauek, oinean: zazpi metro eta erdi (7,5) luze eta bi metro (2) zabal.
2. Obra-motaren eta edukiontzia jarriko den bide publikoaren arabera egokien den edukiontzi-eredua baimenduko du udalak.
3. Metalezko txapa batez (matrikula) identifikatuta egon beharko dute. Datu hauek ageri behariko dira bertan, argi eta garbi:
 - Edukiontziaren jabearen izena -edo ardura duen enpresarena- eta telefonoa.
 - Identifikatzeko beharrezko diren datuak oro, emandako udal baimenaren arabera.
4. Egunez nahiz gauez ongi ikusteko moduko kolorez pintatuta egon beharko dute obretako edukiontzien, eta 40 x 10 cm-ko zerrenda islatzaile bana eduki beharko dute goiko angeluetan, aldeetako bakoitzean.
5. Edukiontziak gauez bide publikoan utzi beharra baldin badago, nahiko seinale is-latzaile edo argizko eduki beharko dituzte jarrita, behar bezala bereiz daitezten, bideetako segurtasunaren alorreko arauetan xedatutakoa gorabehera.
6. Iluntzean -zehazki, argiteria publikoa funtzionatzen hasten denetik aurrera-, baita argitasun gutxiko orduetan ere, edukiontzien izkinetan argi gorriak pitz daitezela galdutako da zenbait kokalekuri dagokienez, eta hala zehaztuko da baimenean bertan.
7. Garbi, ondo zainduta eta ondo ikusteko moduan eduki beharko dira edukiontziak beti ere.

117. artikulua.- Bide publikoan non jarri

1. Obra eremu itxiaren barruan jarri beharko dira edukiontziak, eta hori ezinezkoa bada, berriz, galtzadan, zintarriaren ondoan -espaloia duten kaleetan.
2. Obra barruan jartzea ezinezko bada, leku hauetan jarri ahal izango dira: aparka-tzea zilegi den galtzadetan, hiru metro edo gehiagoko zabalera duten espaloietan eta igarobideei dagokienez arau hauetan finkatutako betebeharrak betetzen di-tuen beste edozein lekutan.
3. Plaza, oinezkoen alderdi, espaloirik gabeko kale eta antzekoetan, obra barruan jartzea ezinezko bada, obratik ahalik eta gertuen jarri beharko dira edukiontziak, etxe eta dendetara sartzea oztopatu gabe eta bertatik igarotzen diren oi-nezkoei nahiz ibilgailuei ahalik eta trabarik gutxien egiteko moduan.
4. Edonola ere, arau hauek bete beharko dira edukiontziak jartzerakoan:
 - Ahal delarik obraren aurrean jarri beharko dira, edo, bestela, ahalik eta ger-tuen.
 - Ibilgailuen ikuspena ez oztopatzeko moduan jarri beharko dira, bereziki bi-degurutzeetan, Zirkulazio Kodeak aparkatzeari dagokienez finkatuak dituen distantziak errespetatzen direlarik.
 - Ezingo dira jarri ez oinezkoentzako pasabideetan, ez horien aurrean, ez ibil-gailu-pasabideetan, ez aparkatu edo gelditzeko erreserbatutako lekuetan, salbu eta erre-serba horiek obrarako eskatu badira.

- Inolaz ere ezingo dira jarri -ez osorik, ez zati bat- zerbitzu publikoetara heltzeko tapan gainean, ureztapen edo sute hartuenean gainean, zuhaitz-zuloen gainean eta, oro har, hiriko beste edozein elementuren gainean, bal-din eta -egoera normalean nahiz larrialdietan- hura erabiltzea oztopatzen bada.
- Halaber, ezingo dira jarri espaloien gainean baldin eta edukiontzia jarri ondoren eta, halakorik bada, hesiek hartzen duten lekua kendu ondoren, gutxienez metro bateko igarobidea uzten ez bada.
- Galtzadetan ere ezingo dira jarri, baldin eta, norantza bakarreko bidea izaki, libre geratzen den espazioa 2,75 metrotik beherakoa bada, edo, bi norantzako bidea izaki, 6 metrotik beherakoa bada. Ezingo da edukiontzirik jarri lau metrotik beherako zabalera duten kaleetan, ez espaloietan, ez gal-tzadan.

5. Bete ere, alderik luzeena espaloiarekin edo fatxada-lerroarekin paralelo dutela ja-rri beharko dira edukiontziak, baterian aparkatzen den kale-zatietan izan ezik.

6. Edukiontziak galtzadan jartzen direnean, 0,20 metro urrundu beharko dira espaloien zintarritik, ez diezaioten galarazi azaleko urari erretenean barrena gertue-neko hustubidera iristea. Gainera, trafiko seinaleztapenerako gutxienez hiru kono jarri babestu beharko da edukiontzi bakoitza; hain zuzen ere, zirkulaziotik ger-tuen geratzen den aldean jarri beharko dira bide publikoan, zeihar.

7. Edukiontziak bide publikoko obra-eremu itxietan edo eraikinen barruan jartzeko ez da beharrezko izango udalari jakinaraztea; hala ere, titulu honetan adierazi-tako gainerako xedapenetara moldatu beharra izango da halakoak erabili eta ga-rraiatzeko orduan.

118. artikulua.- Estaltzeko obligazioa

1. Bete ondoren, material egokiko olana edo oihalez estali beharko dira edukiontziak, guztiz estali ere, hondakin-materialak erori edo haizeak sakabana ez di-tzan.
2. Halaber, nahitaezkoa izango da laneko ordutegia bukatzen den bakoitzean edukiontzeak estaltzea.

119. artikulua.- Erantzuleak

1. Obra-baimenaren titularra izango da bide publikoko zoladuran nahiz udalerriko bestelako egiturazko elementu edo apaingarrietan eragindako kalteen erantzule, baita beste inori egindako kalteena ere; orobat izango da erantzule obretako lur eta hondakinak sortu eta botatzearen inguruko debekuetan adierazitakoari dago-kionez. Baimendu gabeko lekuetan botatako obretako lur eta hondakinak erreti-ratzeko obligazioa izango du, noiznahi dela ere, udal agintaritzak hala galdatzen baldin badio.

2. Dena delako kalea garbitu eta obretako lur eta hondakinak erretiratu ahal izango dituzte udal zerbitzuek, eta eskainitako zerbitzuari dagozkion kostuak erantzule denari leporatu, legozkiekeen bestelako erantzukinak gorabehera. Materialak ga-rraiatu beharra ekarri duten obra edo lanak egiten ari diren enpresari edo susta-tzaileak ordezko erantzule izan-go dira.

120. artikulua.- Edukiontziak kentzea

Honelakoetan kendu beharko dira bide publikotik obretako edukiontziak:

1. Emandako obra-baimena agortzen denean. Gehienez ere hamar egunez eduki ahal izango dira edukiontziak bide publikoan, salbu eta baimen berezia eskura-tzen delarik, edo udalak -zirkunstantzia bereziak direla eta- udalerriko ingurune-ren baterako bestelako mugak ezartzen dituelarik.
2. Interes publikoko arrazoen kariaz udalak hala eskatzen duenean.
3. Betetzen direnean, husteko -betetzen diren egun berean hustu beharko dira, beti ere.
4. Obra bera dela-eta ezingo da aldi berean edukiontzi bat baino gehiago erabili. Erabilitako edukiontzia kentzen denean, garbitasun eta txukuntasun egoera onean utzi beharko da hura jarrita egon den lekua, baita inguruak ere.

121. artikulua.- Edukiontziak manipulatzeko

1. Obretako edukiontziak jarri nahiz kentzeko lanak herritarrei enbarazurik ez egi-teko moduan egin beharko dira.
2. Edukia -edo parte bat- bide publikora ez erortzeko moduan eta ez haizeak ez ha-rrortzeko edo sakabanatuko moduan erabili eta manipulatu beharko dira obretako edu-kiontziak.



III. ATALA.- OBRETAO HONDAKINAK KANPORATU ETA BOTATZEA

122. artikulua.- Obretako lur eta hondakinak kanporatzea

1. Honela kanporatu ahal izango dituzte herritarrek obretan sortutako lur eta hon-dakinak:
 - Zuzenean, beren kontura kontratatu eta udalak baimendutako obretako eduki-ontzietara, ordenantza honetan xedatutakoa errespetatzen dutelarik.
 - Zuzenean, hondakin geldoak jasotzeko baimendutako zabortegira edo udalak horretarako egokitu edo baimendutako lekuetara.
2. Aurreko idatz-zatian aipatutako obretako lur eta hondakinak kanporatzeko lanak direla eta, obraren sustatzailea izango da bide publikoan sortzen den zikinkeria-ren erantzule, eta zikindutako inguru guztia garbitzeko obligazioa izango du.
3. Udalak besteren ordez egin ahal izango ditu aurreko idatz-zatian adierazitako garbitze lanak, eta gero eskainitako zerbitzuaren kostua obraren sustatzaileari leporatu, legozkio-keen bestelako erantzukinak gorabehera.

123. artikulua.- Debekuak

Obretako lur eta hondakinak kanporatu eta botatzeari dagokienez, debekatuta dago:

1. Edukiontzia baimendua duen maila gainditzea, hura obrako materialez bete-tzean. Halaber, ezingo da jarri edukiontzia neurriak edo edukiera handitzeko elementu gehi-garririk.
2. Gai sukoi, leherkor, toxiko, kaltegarri eta arriskutsuak dituzten hondakinak obretako edukiontzietara botatzea, baita usteldu edo usain txarra sor dezaketen ere; halaber, beste edozein arrazoi dela-eta bide publikoaren erabiltzaileentzat eta auzokoentzat osasungaitz, gogaikarri, kaltegarri, deseroso edo arriskutsu gerta litezkeen nahiz dena delako edukiontzia kokatuta dagoen inguruneari edo bertako estetikari kalte egin diezaioketen hondakinak botatzea.
3. Altzari, tresna, traste zahar eta antzeko hondakin-materialak obretako edukion-tzietara botatzea.
4. Hondakinak jabari publiko nahiz pribatuko lur sailetan botatzea, udalak, berariaz, horretarako baimenik eman ez badu.
5. Artikulu honetan xedatutakoa hausten dutenak zigortu egingo dira, legozkiekeen beste-lako erantzukinak gorabehera.

IV. ATALA.- OBRETAO LUR ETA HONDAKINAK GARRAIATZEA

124. artikulua.- Garraioa

1. Obretako lur eta hondakinak hiriko kaleetan barrena garraiatzerakoan, ordenan-tza honetan xedatutakoa aintzat harturik jokatu beharko da; horrez gain, aplika-garri diren bestelako arauak ere bete beharko dira.

125. artikulua.- Garraiorako ibilgailuak

1. Obretako lur eta hondakinak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek ezinbestean bete beharko dituzte edukia bide publikoan ez sakabanatzeko beharrezko diren baldintzak.
2. Ibilgailuak kargatzerakoan, behar diren neurriak hartu beharko dira bide publikoa ez zikintzeko.
3. Hondakinak kamioian garraiatzean, horretarako eskatzen diren baldintzak bete beharko dira beti ere: estali egin beharko da karga, materialak ez sakabana-tzeko, eta estu atxiki, erortzeko arriskurik badago, eta, oro har, Zirkulazio Ko-dean aurreikusitako betekizunak bete beharko dira. Gauzez edo argitasun gutxi dagoen orduetan erretiratzen badira, seinale islatzaileak erabili beharko dira.
4. Galarazita dago garraiatzen diren materialek kamioiaren kaxaren edo edukion-tziaren goiko ertzak gainditzea. Galarazita dago, halaber, baimendu gabeko ge-higarriak erabiltzea ibilgailuen eta edukiontzien neurriak edo karga-ahalmena handitzeko.

126. artikulua.- Garbiketa, kargatze, deskargatze eta garraiatze lanetan

1. Baldin eta kargatze eta garraiatze lanen ondorioz bide publikoa zikintzen badute, zikindutako bide zati hori berehalakoan garbitzeko obligazioa izango dute obretako lur eta hondakinak garraiatzen dituztenek.
2. Orobat izango dute baimendu gabeko lekuetan botatutako obretako lur eta hondakinak erretiratzeko obligazioa, noiznahi dela ere, udalak hala galdatzen baldin badie.
3. Zoladura, hiri altzariren bat, zuhaitzen bat edo estetika-elementuren bat hondatzen bada, berehala jakinarazi beharko zaio udalari, eta garraio-enpresaren eta edukiontzia-aren



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

erabiltzailearen datuak eman, baita zein lekutan izan den jakina-razi eta beste edozein zirkunstantziaren berri eman ere.

4. Bide publikoa garbitu, isuritako materialak erretiratu eta hondatutako elementuak konpondu ahal izango dituzte udal zerbitzuek, eta hortik sortutako gastuak eran-tzule direnari leporatu, legozkiekeen bestelako erantzukinak gorabehera.

5. Aurreko idatz-zatian xedatutakoari dagozkionetara, lur eta hondakinak garraiatu beharra ekarri duten obra edo lanak egiten ari diren enpresari edo sustatzaileak ordezko erantzule izango dira.

6. Obretako lur eta hondakinak udalak horretarako baimendutako lekuetan jaso eta deskargatzen direlarik, ez da aurrerantzean horiekin egiten denaren gaineko erantzukizunik izango.

V. ATALA.- ORDUTEGIA

127. artikulua.- Ordutegia

1. Lan orduetan utzi beharko dira obretako lur eta hondakinak edukiontzietan, au-zokoei enbarazurik egin gabe.
2. Larunbat eguerditik asteleheneko goizeko zazpiak bitartean, debekatuta dago obretako edukiontziak kalean edukitzea.
3. Aurreko puntuan xedatutakoa urratzen dutenei zigorra jarriko zaie, salbu eta al-dez aurretik, zirkunstantzia bereziak direla eta, udal zerbitzuen berariazko bai-mena eskuratu badute. Guztia ere, dena delakoari legozkiekeen bestelako eran-tzukinak gorabehera.

VIII. KAPITULUA.- HIRI HONDAKINAK TRATATU ETA SUNTSITZEA, ETA ZABORTEGIAK

I. ATALA.- BALDINTZA OROKORRAK ETA APLIKAZIO-ESPARRUA

128. artikulua.- Xedea

Oro har, udalerrian sortutako hondakin solidoen tratamendua egiteko bete beharko diren baldintzak arautzen dira kapitulu honetan, hau da, udalak hala baimendurik, hondakin horiek beraren instalazio eta ekipamenduetan tratatu eta suntsitzean bete beharre-koak.

129. artikulua.- Debekuak

1. Debekatuta dago ingurunean hondakin-materialak kontrolik gabe uztea ekarriko lukeen ekintza oro.
2. Edozein hiri edo industria hondakin aire zabalean, galdaretan eta berogailuetan erretzea debekatuta dago, dagokion jardura baimena edo lizentzia gorabehera."

130. artikulua.- Materialak eta gauzatze subsidiarioa

1. Udalak jasotzen dituelarik, beraren jabetzako bihurtuko dira hondakin-materialak. Hondakinetan, ustekabean, nolabaiteko balioa duten objektuak aurkitzen badira, galdutako objektutzat joko dira.
2. Abandonatutako hondakinak jaso, garraiatu eta tratatu edo suntsitu egin ahal izango dituzte udal zerbitzuek, eta eskainitako zerbitzuen kostua haien erantzule direnei leporatu, galda lekizkiekeen bestelako erantzukinak gorabehera.

131. artikulua.- Hondakinak uztea

- 1.- Pertsona fisiko eta juridikoek hondakinak tratatu edo kentzeko instalazioetan hondakinak utz ditzaten onartu ahalko du Udalak: jarraian, denbora baterako edo noizean behin.
- 2.- Hondakinak onartuak izan daitezen, dagokion eskabidea helarazi beharko die erabiltzaileak udal zerbitzuei. Behin hori aztertu ondoren, onartzea egoki den edo ez erabakiko da, baita, onartzen bada, horretarako baldintzak ere.
- 3.- Hondakinak tratatzeko udal instalazioetan hondakinak uzteari eta onartzeari buruzko araudiak xedatuko ditu Udalak.

132. artikulua.- Udalaren helburuak, hondakinen trata-mendua dela eta

1. Udal zerbitzuen iritziz hondakin-materialak berreskuratzea eta horiei balioa ematea helburu duten ekimenak lagundu egingo ditu udalak, bere eskumenen baitan.
2. Orobat lagundu ahal izango ditu hondakinetatik berreskura daitezkeen baliabi-deak berreskuratu eta horiek ondasun berriak egiteko erabiltzera bideratutako ekimenak.

133. artikulua.- Tratamendua

Hondakin solidoak tratatu edo suntsitzeari dagokion tasa aplikatuko die udalak horretarako instalazioak erabiltzen dituztenei.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

II. ATALA.- HONDAKIN SORTZAILEEN ERANTZUKIZUNA

134. artikulua.- Erantzukizuna

- 1.Hiri hondakinak dituzten pertsonak horiek udalari emateko obligazioa izango dute, or-denantza honetan finkatutako baldintzei jarraiki birziklatu, balioa eman edo suntsi daitezen. Hondakin horien jabe egingo da udala, beraren esku uzten direlarik, eta ordura arteko jabeek ez dute inolako erantzukizunik izango aurre-rantzean, baldin eta entregatzera-koan ordenantza honetan nahiz gainerako lege-arauetan emandako jarraibideak aintzat hartu badituzte.
- 2.Era berean, udalak hala baimentzen duelarik, kudeatzaile baimendu edo erregis-tratu baten esku utzi ahal izango dira hondakin horiek, berak birziklatu edo balioa eman diezaien.
- 3.Hondakinak sortzen dituzten edo halakoak dauzkatenek baimendu gabeko per-tsonaren bati ematen badizkiote horiek garraiatu, tratatu edo suntsi ditzan, hark hondakin horiekin egiten duenaren ondorio den edozein kaleren erantzule subsidiario izango dira.
- 4.Beren ezaugarriengatik -bildu, garraiatu, balioa eman nahiz suntsitzeko orduan- enba-razua sor lezaketen hiri hondakinak sortzen dituzten edo halakoak dauzka-tenek udalari horien jatorriari, kantitateari eta ezaugarri buruzko informazio ze-hatza emateko obliga-zioa izango dute.
- 5.Aurrekoa gorabehera, udalak uste badu -eskumena duten erakundeek egindako txoste-nak aintzat harturik- ezaugarri arriskutsuak dituztela merkataritza-aretoek sortutako hiri hondakinak -edo bildu, garraiatu, balioa eman nahiz suntsitzea zailtzen duten ezauga-riak-, berak jaso aurretik ezaugarri horiek ahal den neu-rrian desagerrarazi edo murriz-teko beharrezko diren neurriak hartzera edo leku eta modu egokian uztera behartu ahal izango du horiek sortu dituen edo bere esku dauzkana.
- 6.Idatz-zati honetan araututako kasuetan, baita -kalitatea, kantitatea edo bolu-mena dela-eta- etxeetakoez bestelako hiri hondakinak direnean ere, hondakinak berek kudeat-zer behartu ahal izango ditu udalak horiek beren esku dituztenak.

III. ATALA.- ZABORTEGIAK ETA HIRI HONDAKINEN TRATAMENDURAKO INSTALAZIOAK

135. artikulua.- Biltegi eta zabortegiak

Zabortegi eta biltegiak sailkatutako jardueratzat joko dira, hau da, pertsonen enbarazu egin nahiz horien ondasunei kalte eragin diezaieketen eta ingurumenean kalteak sor ditzaketan jardueratzat; hortaz, halako jardueren gaineko araudietan xedatutakoaren ildotik tramitatu beharko dira horiek instalatzeko beharrezko diren baimenak.

136. artikulua.- Zabortegi klandestinoa

Aurreko artikuluan adierazitakoa betetzen ez duen zabortegi oro klandestinoztat joko da eta, behar diren tramiteak egin ondoren, itxi egingo da, dena delakoari dagozkion erant-zukin gorabehera.

137. artikulua.- Bestelako instalazioak

Hondakinak bildu, tratatu, balioa eman nahiz suntsitzeko beste edozein instalazio sailka-tutako jardueratzat joko da, hau da, pertsonen enbarazu egin nahiz horien ondasu-nei kalte eragin diezaiekeen eta ingurumenean kalteak sor ditzakeen jardueratzat; hortaz, halako jardueren gaineko araudietan xedatutakoaren ildotik tramitatu beharko dira horiek instalatzeko beharrezko diren baimenak.

138. artikulua.- Instalazioetarako sarbidea mugatzea

- 1.Hiri hondakinentzako zabortegi eta tratamendu instalazioetan zaintze lanaz ardu-ratuko diren langileak eduki beharko ditu udal zerbitzuak edo ustiapena bere gain hartua duen enpresak, eta baimenik ez duten pertsona eta ibilgailuei galarazi egin beharko diete horiek zabortegi eta instalazioetara sartzea.
- 2.Debekatuta dago edozein partikular zabortegietan hondakin solidoak manipulatu eta aprobetxatzen ibiltzea, salbu eta udalaren baimena dutelarik hondakin mota-ren bat erauzi eta ustiatzeko lanak egiten dituzten partikular eta enpresak.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

IX. KAPITULUA.- ERREGIMEN ZIGORTZAILEA

LEHENENGO ATALA.- XEDAPEN OROKORRAK

139. artikulua.-Administrazio arau-hausteak

Ordenantza honek arautzen dituen gaiei dagokienez, arau-hauste administratibo izango dira bertako arauetan jasotako kontrako diren ekintza edo ez-egiteak oro, baita ordenantzan arautzen diren gaien inguruko neurri zuzentzaileak har daitezela galdatzen delarik edo administrazio-aginduak ematen direlarik horiek ez betetzea ere.

140. artikulua.- Zigortzeko prozedura

Testu honetan jasotako arauak ez betetzearen ondorio diren erantzukizunei aurre egin behar dieten pertsonari zigorrak ezarri ahal izango zaizkie, legez ezarritako prozedurari jarraiki.

141. artikulua.- Zigortzeko eskumena

1. Indarrean dagoen toki jaurbidearen alorreko araudiaren ildotik zehaztuko da gai honetan zigorrak jartzeko eskumena zeini dagokion.
2. Zigortzeko prozedurak behar bezala bereizi beharko ditu instrukzio-aldia eta ebazte-aldia, zeinek organo desberdinen esku egon beharko baitute.

142. artikulua.- Erantzukizuna

1. Ordenantza honetako aginduak betetzen ez dituzten ekintza edo ez-egiteek iza-era administratiboko erantzukizuna ekarriko dute berekin, eska litezkeen beste-lako erantzukizunak gorabehera.

2. Erantzule diren pertsona fisiko edo juridikoak bakarrik zigortu ahal izango dira arau-hauste administratibo gertatzen diren ekintzengatik. Hainbat pertsonari ba-tera jarritako obligazioak ez betetzearen ondorio bada arau-haustea, modu soli-darioan erantzun beharko dute guztiek ere. Hala gertatuko da honako hauetan:

- Hondakinen jabeak, horiek dauzkanak nahi kudeatzen ari denak legez bai-menduz beste pertsona fisiko edo juridiko bati ematen dizkionean.
- Erantzuleak hainbat pertsona izanik, horietako bakoitzak dena delako arau-haustean izandako partaidetza-maila zehaztea ezinezko denean.

143. artikulua.- Hondakinen erantzule den titularra.

1. Beti izango da hondakinen erantzule titular bat, dela erabiltzailea, dela sortu di-tuena, dela bere gain hartuak dituena, dela kudeatzen dituena, kasuan kasu.
2. Honako hauek bakarrik egongo dira erantzukizun administratibotik salbuetsita: hondakinak udalaren esku utzi dituztenak, ordenantzak eta aplikagarri diren gai-nerako arauak bete badituzte, nahiz, ordenantza honetan jasotzen denari jarraiki, administrazioak baimendutako kudeatzaileei eman dizkietenak -behar diren ku-deatze lanak egin ditzaten-, hala egitean lege eta araudietan bildutako betekizunak bete badira.

144. artikulua.- Aldatutako ingurunea lehengoratzea

1. Jartzen diren zigorrak gorabehera, egindako kalteak konpontzeko obligazioa izango dute araudia urratzen dutenak, hau da, aldatu dituzten ondasunak le-hengo egoerara bihurtzekoa.
2. Zigorra jarri dion organoak ingurunea lehengoratzeko galdatzen diolarik arau-hausleak ez badu agindutakoa betetzen, modu subsidiarioan egin dadila aginduko du hark.
3. Erantzule direnen kontura egingo da gauzatze subsidiarioa, jar litezkeen diru-zigorrak eta eska litezkeen bestelako kalte-ordainak gorabehera.

BIGAREN ATALA.- IKUSKAPENA ETA KONTROLA

145. artikulua.- Ikuskapena eta kontrola

1. Horretarako baimendutako udal langileen nahiz Udaltzaingoaren zeregina izango da ordenantza honetan jorratzen diren gaien inguruko zaintze, ikuskatze eta kon-trolatze lanak egitea.
2. Ikuskatze lanak egiten dituzten langileak agintzaritzaren agente izango dira, ho-rretan ari direlarik. Edozein ikuskatze bisitalditan arau-hauste izan litekeen gerta-karirik atze-maneraz gero, aktan azalduko da. I. eranskinean ageri da horretarako salaketa orria. Akta horiek ziurtasun-presuntzioa eta froga-balioa izango dute, administratuek beren interesen defentsarako aurkezten dituzten bestelako frogak gorabehera.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

HIRUGARREN ATALA.- ARAU-HAUSTEAK

146. artikulua.- Arau-hausteen tipologia

Ordenantza honen arabera, ondorengo artikuluetan adierazten direnak joko dira arau-haustetzat, eta arin, larri eta oso larri gisa sailkatuko dira.

147. artikulua.- Arau-hauste arinak

Hauek izango dira arau-hauste arinak:

1. Garbiketari buruzko arauari dagokienez, honako hauek:

- Ordenantza honetan finkatutako ordutegitik kanpo egiten diren garbitze jar-duera pribatuak, baita beste inori nahiz ondasun publikoei kalte egiten diete-nak ere.
- Bide publikoan nahiz bertako edozein elementutan zernahi hondakin-gai li-kido, solido nahiz solido bihur litekeenik utzi, abandonatu, isuri edo botatzea.
- Animalien jabeek nahiz animaliak dituztenek horien gorotzak berehala ez ja-sotzea.
- Bide publikoa ez zikintzeko beharrezko diren neurriak hartu gabe garraiatzea honda-kinak.
- Bide publikoan barrena lurra eta obra-hondakinak garraiatzerakoan ordenan-tza honetan ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Udal zabortege, tratamendu-lantegi nahiz hondakinak aldi batez gordetzeko instala-zioetako hondakinak manipulatu, bertatik atera nahiz baliatzea.
- Kartel, pankarta, banderatxo, eranskailu edo antzekoak -gehienez 10 ale- aurretiatzko jakinarazpena egin gabe edo Udalak berariaz baimendu edo ezarritako tokietan jart-zea.
- Ordenantza honen 35.1. artikuluan zehaztutako ordutegia ez betetzea.
- Jardueraren eraginpeko kaleko espazioa garbitasun egoera egokian ez man-tentzea, hondakinak uzteko lekua bera ere barne.
- Behar fisiologikoak bide publikoan asetzea.

2. Hondakinak erretiratzeko arauari dagokienez:

- Ezarritako bilketa sistemak eskatzen dituen baldintzak bete gabe uztea hon-dakinak.
- Edukiontzietako hondakinak manipulatzeko.
- Hondakinak halakoak uzteko edukiontzi edo buzoietatik kanpo uztea.
- Hondakinen gaikako bilketarako edukiontzietan halakoetarako onargarri ez di-ren hondakinak botatzea.
- Ordenantza honen 122. artikuluan adierazitako betebeharrakoren bat ez be-tetzea.
- Hondakinak edukiontzietara nahasirik botatzea, zerbitzuaren funtzionamendua ozto-patzen delarik.
- Hondakinak uzteko ordutegi eta lekuei buruzko arauak ez betetzea.

3. Ordenantza honen xedapenen aurka doazen eta arau-hauste larri edo oso larri gisa tipifikatuta ez dauden gainerako ekintza eta omisio guztiak.

148. artikulua.- Arau-hauste larriak

Hauek izango dira arau-hauste larriak:

1. Bide-garbiketari buruzko xedapenei dagokienez:

- Zigarroak, puruak, zigarrokinak edo piztuta dauden bestelako materialak za-karrontzietara edo edukiontzietara botatzea.
- Leiho, terraza, balkoi, eta eraikin, etxebizitza edo establezimenduetako bes-telako elementuetatik bide publikora hondakinak botatzea.
- Bide publikoan, ibilgailuak konpontzeko eta garbitzeko lanak egitea, garbi-ketako urak isurtzea edo baimenik lortu gabe edonolako hondakin-materiala manipulatzeko.
- Edozein delarik ere jarduera, bide publikoa ez zikintzeko edo gutxiago zikin-tzeko hartu beharreko neurri egokiak ez hartzea hari ekin aurretik.
- Bide publikoan egindako lanen hondarrak edo obra-hondakinak bertatik ez kentzea.
- Obrak direla eta bide publikoan sortutako zikinkeria berehala ez garbitzea.
- Eraikinak behar bezala ez zaintzea, segurtasunari, garbitasunari eta txukun-tasunari dagokienez.
- Urbanizazio pribatu bateko espaloiak, ibilbideak, galtzadak, plazak eta bes-telako instalazioak, garbitasunari dagokionez, behar bezala ez zaintzea.
- Barruko patioak, galeria komertzialak eta gainontzeko elementu pribatuak, garbitasu-nari dagokionez, behar bezala ez zaintzea.
- Elurteak direla eta II. kapituluko VII. atalean aurreikusitako betebeharrak ez betet-zea.

- Ordenantza honen ildotik lizentzia edo baimenean jarritako baldintzak ez betetzea. Halaber, udal lanak kontratatzeko baldintza-orrietan jarritako baldintzak ez betetzea.
- Ordenantza honen III. kapituluaren zehaztutako xedapenen aurka egitea, uda-lerriaren garbitasunari dagokionez; zehazkiago, hiriaren erabilera komun eta pribatiboari eta agerpen publikoei dagokienez.
- Kartel, pankarta, banderatz, eranskailu edo antzekoak –gehienez 50 eta 11 ale bitartean– aurretiazko jakinarazpena egin gabe edo Udalak berriaz baimendu edo ezarritako tokietan jartzea.
- Ordenantza honetan araututako aurretiazko jakinarazpenaren baldintza edo betekizunetako bat ez betetzea.

2. Hondakinei buruzko xedapenei dagokienez:

- Erabiltzaileek hondakinak bilketa zerbitzuen beharretara egokitzeko duten obligazioa ez betetzea, edo, era berean, tratamendu instalazioek behar bezala funtziona dezaten beharrezko diren baldintzak ez betetzea.
- Ordenantza honen helburuak betetze aldera jarritako edukiontziei nahiz beste edozein hiri altzariri kalte funtzional nahiz estetikoa egitea.
- Hondakinak kargatu, garraiatu eta deskargatzeko lanak galaraztea.
- Etxeatako zaborrak biltzeko erabiltzen diren ontziak -behin eta berriz era-biltzekoak- kaletik ez kentzea.
- Etxeatako hondakinak estolderi sarera botatzea.
- Hondakinak nahasi eta, hartara, gerora behar bezala baliatzea galaraztea.
- Beharrezko diren ikuskapen eta egiaztapenak galaraztea.

3. Urtebetean arau-hauste arin bat baino gehiago egitea -ebazpen irmoa dela medio halakotzat jo direlarik.

149. artikulua.- Arau-hauste oso larriak

Hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

1. Bide-garbitari buruzko arauak dagokienez:

- Hormigoi-kamioian garraiatzen delarik hormigoia, bide publikora isurtzea galarazteko behar den tresnaz itxi gabe eramatea deskarga-zuloa.
- Hormigoi-makinak bide publikoan garbitzea.
- Tresnak eta altzariak bide publikoan uztea.
- Ordenantza honetako I. kapitulutik III. era doazenetan aurreikusitako jardunak burutzea dagokion aurretiazko jakinarazpena egin gabe, hain zuzen, haien berezko xedapenekin bat, hori behar duten jardunak.
- Bide publikoan edonolako pintadak egitea, dela egiturazko elementuetan, gal-tzadan, espaloietan edo altzarietan, dela hormetan, paretetan, estatueta, monumentuetan edo kanpoko beste edozein elementutan, ordenantza honen 47.2. artikuluan adierazitakoak salbu direla.
- Edonolako esku-paperak, testu inprimatuak edo antzeko materialak bide publikoan botatzea.
- Kartel, pankarta, banderatz, eranskailu edo antzekoak –gehienez 50 ale– aurretiazko jakinarazpena egin gabe edo Udalak berriaz baimendu edo ezarritako tokietan jartzea.

2. Hondakinei buruzko xedapenei dagokienez:

- Horretarako jarritako lekuetatik kanpo uztea hondakinak, eta, hartara, kontrol gabe zabor-guneak.
- Arriskutsutzat tipifikatutako hondakinak uztea edukiontzietan.
- Arriskutsu izan daitezkeen hondakinei buruzko informazioa ukatzea.
- Lur publiko nahiz pribatuetan hondakinak erretzea.
- Animalia hilak bide publikoan uztea.
- Osasun publikoari eragiten dioten hondakinak halakoak biltzeko edukiontzi edo pilatze lekuetan ez uztea.
- Ordenantza honen helburuak betetze aldera jarritako edukiontziak nahiz beste edozein hiri altzari nahita hondatzea.
- Ordenantza honen 76.4. artikuluan adierazitako betebeharretako edozein ez betetzea.

3. Urtebetean arau-hauste larri bat baino gehiago egitea -ebazpen irmoa dela medio halakotzat jo direlarik.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

LAUGARREN ATALA.- ZIGORRAK

150. artikulua.- Mailaketa

1.Sortutako arrisku edo kaltea, lortutako etekina eta zenbateraino nahita egin di-ren kon-tuan hartuta mailakatuko dira ordenantza honetan jasotako arau-hausteengatik zigo-rrak.

2.Erantzukizun administratiboari dagokionez, zirkunstantzia aringarritzat joko da inguru-nean sortutako ondorio kaltegarriak murriztu edo deuseztatzeko neurri zuzentzaileak har-tu izana dossier zigortzailea abiarazi aurretik.

151. artikulua.- Zigorrak.

1.Honela zigortuko dira ordenantza honetako xedapenen kontrako arau-hausteak:

- Arau-hauste arinak, ohartarazpena edo 90 eurotik eta 750era bitarteko isuna.
- Arau-hauste larriak, 751 eurotik 1.500era bitarteko isuna.
- Arau-hauste oso larriak, 1.501 eurotik 3.000ra bitarteko isuna.

2.Ordenantza honi jarraiki inoren kontrako dossier zigortzailea abiarazten delarik, proze-dura hitzarmen baten bidez bukatutzat eman dadila eskatu ahal izango du hark, ebazpen zigortzailea eman aurretik, udalerrian komunitatearentzako lanak egiteko eskaintzen due-larik bere burua -arau-haustearen zer-nolakoen eta larritasunaren arabera izan be-harko dute lan horiek, udalak horretarako onesten duen ordenan-tzan zehazten denaren ildotik.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Ordenantza hau ez zaie aplikatuko berau indarrean jarri aurretik abian ziren prozedurei, zein aurreko araudiaren menpe egongo baitira.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Ordenantza hau indarrean jartzen delarik, indargabetu egingo dira bertan araututakoaren kontrako diren, horrekin kontraesanean dauden nahiz bateraezinak diren maila bereko udal arauak oro.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 15 egunera jarriko da indarrean ordenantza hau.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Onespena: 2005/04/22

ALHAO, 85 zk. 2005/07/29

Azken aldaketa: 2010/06/25

ALHAO, 88 zk. 2010/08/06

I. ERANSKINA

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz



Vitoria-Gasteizko
Udala

Departamento de Medio Ambiente
Policía Municipal
Ingurumen Saila
Udaltzaingoa

BOLETIN DE DENUNCIA – SALAKETA-ORRIA

	HORA ORDUA	DIA EGUNA	MES HILA	AÑO URTEA
Nº/ Zk				

INFRACCIÓN - ARAU-HAUSTEA	
	PRECEPTOINFRINGIDO HAUTSITAKO ARAUA

NOMBRE – IZENA	D.N.I. - NAN
APELLIDO – DEITURAK	
DIRECCIÓN – HELBIDEA	
ENTIDAD - ERAKUNDEA	

INSPECTOR/A

AGENTE
INSPEKTOREA
UDALTZAINA

FIRMA DEL/DE LA INFRACOR/A
ARAU-HAUSLEAREN SINADURA

LA FIRMA DE ESTE BOLETÍN NO IMPLICA
CONFORMIDAD CON SUS EXTREMOS.
ORRI HAU SINATZEAK EZ DU ESAN NAHI
ADIERAZITAKOAREKIN BAT NATORRENK